



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018KO UZTAILAREN 27AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:
Itziar Arratibel Imaz
Jon Mikel Iglesias Otegui

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Kontuhartzailea: Lierni Muñoa Salaberria

Ibarran 2018ko uztailaren 27an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.- AURREKO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKTEN ONARPENAK

1.1.- 2018KO MAIATZAREN 25EKO AKTA

2018ko maiatzaren 25ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2018ko maiatzaren 25ean eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.2.- 2018KO EKAINAREN 22KO AKTA

2018ko ekainaren 22an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2018ko ekainaren 22an eginiko Gobernu Batzarraren akta

1.3.- 2018KO UZTAILAREN 6KO EZ-OHIKO AKTA.

2018ko uztailaren 6an eginiko ez ohiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2018ko uztailaren 6an eginiko ez-ohiko Gobernu Batzarraren akta

BIGARRENA

2.- 2018KO UZTAILAREN 20KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZMENEN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

2.1.- BELABIETA KIROLDEGIKO TERRAZEN INPERMEABILIZAZIO OBRAKO PELGUAK ONARTZEA

Ibarrako Udalak, Belabieta kiroldegiko sarrerako terrazako itokinak eta fatxadetako kalteak konpontzeko helburuarekin obrak egin nahi ditu 2018 urtean.

Obra burutzeko plegu administratibo eta teknikoen azterketa burutu da.

2018ko uztailaren 20ean burututako Hirigintza batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Onartzea Belabieta Kirolddegiko terrazan inpermeabilizazio obra egiteko baldintza plegu teknikoa eta administratiboak. (I ERANSKINEAN JASOA)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA.- Oinarriak kontratazio profilean argitaratzea dagokion prozedura hasteko helburuarekin.

HIRUGARRENA

3.- 2018KO UZTAILAREN 25EKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZMENEN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

3.1 HAZI ETA HEZI PROIEKTUARI DIRU-LAGUNTZA EMATEA

Ikusita, 2018ko uztailaren 10ean, uzturpe Ikastolak Hazi eta hezi izeneko proiektuarentzat diru-laguntza eskaera aurkeztu zuela Udal honetan.

Ikusirik, aipatu eskaerak Euskara eta Hezkuntza teknikariak 2018ko ekainaren 29ko data duen hezkuntza proiektu integratzaile baten beharra islatzen duen txosten bati erantzuten diola.

Ikusirik, teknikariaren txosten horrek fokoa jartzen duela Ibarra etorkizuna nahi baldin badu herrian hazitako eta hezitako neska-mutilak ezinbestekoak dituela.

Kontuan harturik, Euskara eta Hezkuntza teknikariak proiektuari buruz egindako txostena.

Kontuan harturik, kontu hartzaileak proiektuari egindako txostena.

Kontuan harturik, idazkariak proiektuari egindako txostena.

Kontutan hartuta 259/2018 Alkate Dekretuak ezarritako eskumen banaketa.

2018ko uztailaren 25ean burututako Euskara eta Hezkuntza batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

I

LEHENA.- Diruz laguntzea Uzturpe Ikastolako Hazi eta Hezi proiektua, herriari onura ekartzen diolako eta bertako neska-mutilek bertan hazi eta hezteko aukera interesgarria suposatzen duelako.

BIGARRENA.- Aipatu proiektuari 84.893,36 euroko diru-laguntza ematea.

HIRUGARRENA.- Aipatu diru-laguntza, II eranskinean agertzen den Hitzarmen ereduaren arabera gauzatzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA.- Aipatu hitzarmena 2018ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31era arteko iraunaldia izan dezala.

3.2 KUKUMIKU HAUR ESKOLA: JANGELA ZERBITZUAREN DIRU-LAGUNTZA

Ikusirik, 2018ko otsailaren 16ko Gobernu Batzordeak 2.695,94 euroko diru-laguntza onartu zuela Kukumiku Haur Eskolako jangela zerbitzua laguntzeko.

Ikusirik, 2018ko martxoaren 19ko eta apirilaren 20ko idatzi bidez, Kukumiku Haur Eskolako jangela zerbitzua kudeatzen duen IHEGE elkarteak Udalari jakinarazi ziola jangelako erabiltzaile kopurua handitu egin zuela eta horrek ondorio ekonomikoak izango zituela.

Ikusirik, joan den uztailaren 24ean Ihege elkarteko ordezkariak jangela zerbitzuaren kitapena aurkeztu zuela Udalean.

Ikusirik, kitapena ikusita, zerbitzuak 430.59 euroko defizita eragin diola elkarteari erabiltzaile kopuruak gora egin duelako zerbitzua eman den epean.

Kontuan harturik, Euskara eta Hezkuntza teknikariak egindako txostena.

Ikusirik organo emailea Gobernu Batzordea izan zela eta nahiz eta 259/2018 Alkate Dekretuak eskumen banaketa egin diru-laguntza zuzenetan (ekainaren 21etik indarrean dagoena), eman duen organo berdinak erabakiko du

2018ko uztailaren 25ean burututako Euskara eta Hezkuntza batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea IHEGEk aurkeztutako justifikazioa.

BIGARRENA.- Ordaintzea 2018ko otsailaren 16ko Gobernu batzordeak hartutako erabakitik ordaintzeko gelditzen den %30a ordaintzea (807,84 euro)

HIRUGARRENA.- Ihegeri zerbitzuak eragindako 430.59 euroko defizita, diru-laguntza izendunen prozedura jarraiki izapidetzea eskatzen zaio Euskara eta Hezkuntza teknikariari

LAUGARRENA.- Akordio honen berri ematea Ihegeri eta Kontuhartzaitzari.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENA

4.- 2018KO UZTAILAREN 24KO KULTURA ETA GAZTERIA BATZORDEAREN IRIZMENEN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK

4.1 SAN INAZIO AUZOKO 2018 URTEKO JAIETAKO EGITARAUA ETA AURREKONTUA ONARTZEA

Ikusita San Inazio auzoko 2018 urteko jaietarako egitaraua, eta aurrekontua 3.599,33 eurotakoa dela erabaki hau Alkate dekretu bidez (edo honek ahalordeturiko zinegotzi bidez) izapidetzea eskatzen da Idazkaritzatik (kopuruaren arabera irizpidea).

4.2 SAN BARTOLOME 2018 JAIETARAKO EGITARAUA ETA AURREKONTUA ONARTZEA

Jai batzordeak aurtengo jaietako egitarauaren proposamena eta aurrekontuaren aurreikuspena aurkeztu du eta Kultura eta Gazteria batzordeak eta aztertu du.

Proposatutako egitaraua eta aurrekontua aztertuta,

2018ko uztailaren 24an burututako Kultura eta Gazteria batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Onartzea 2018 urterako San Bartolome jaietarako proposatutako egitaraua .(III ERANSKINA)

BIGARRENA.- Jaietako aurrekontuaren gastu espedientea kontu-hartzaileari helaraztea dagokion txostena egin dezan, eta hala badagokio, jaietako gastuak 1.0000.226.338.00.06 Herriko jaiak kontu-sailean egotzi daitezela onartzea.

4.3 SAN BARTOLOME 2018 JAIETARAKO ARIKUSITAKO DIRU-LAGUNTZA IZENDUNEN LANKIDETZA HITZARMENAK ONARTZEA

Ikusirik 259/2018 Alkate Dekretuak diru-laguntza zuzenen inguruan egiten duen eskuduntza banaketa idazkaritzatik jakinarazten da ez dagokiola Gobernu Batzordeari erabaki hau onartzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BOSGARRENA

5.1 ARGITERIA PUBLIKOAREN HORNIKUNTZA EGITEKO ESLEIPEN PROZEDURAN KONTRATAZIO MAHAIAREN PROPOSAMENA

Ikusita 2018ko uztailaren 26an Argiteria Publikoaren Hornikuntza egiteko esleipen prozedurarako kontratazio mahaia elkartu zela.

Ikusita Kontratazio mahaia egin duen proposamena non honakoa esaten den:

Ikusirik onartu ziren plegu teknikoetan Euskal Herria 65 eta Euskal Herria 64-83 kaleetarako NEBRASKA marka eskatu zuela Ibarako Udalak (nahiz eta eskaera justifikagarria zen kale horretan derrigorrez Nebraska argiteria edo itxura berdinekoa zen argiteria behar baita kalean berdintasun itxura mantentze aldera) eta erredakzio hori, printzipioz 9/2017 Sektore Publikoko Kontratu Legeak bere 126.6 eta 99 artikuluen arabera, "antzeko" esaldiarekin osatu beharko litzatekela: kontratazio mahaia Nebraska argiteria eskatu den kaleetako argiteria, prozedura honetatik kanporatzea erabaki du.

Pleguen aurka lizitatzailleek ez zituzten alegaziorik egin eta beraien eskaintzak aurkeztu zituzten; egintza honekin osoki onartzen dutelarik plegu administratibo eta teknikoetan ezarritakoa.

Legea betetze aldera eta berdintasun egoeran partehartzaileak parte har dezaten (eta ikusirik 12 argiteria horiek prozesutik kanporatzeak ez duela indefentsioa sortzen ez eta aurkezturiko prezio proposamenean aldaketarik sorrarazten), 12 argiteria horiek esleipen prozesu honetatik kanporatzea erabakitzen du kontratazio mahaia.

Aurkeztutako proposamenen birkalkulua burutzen da; argiteria unitateen prezioetatik Euskal Herria 65 eta Euskal Herria 64-83 kaleetako argiteriak kenduz.

Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Euskal Herria 65 eta Euskal Herria 64-83 kaleei dagozkien 12 argiteriak lizitazio prozesutik kanpo uztea, errore materiala ikusi baita bere erredakzioan, 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko araudiak bere 99. Artikuluan eta 126.6 artikuluan jasotzen diren konkurrentziaren aldeko baldintzak ez baitira betetzen, zehazki "edo antzekoa" esaldia falta baita. Eta horrek sortarazi du kontraesana izatea aurkeztutako eskeintzen ebaluazioa burutzeko garaian aplikatu



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

beharreko irizpideen inguruan. Udalak, ezin duelarik marka zehatz bat hornitzera behartu.

Lizitaziotik kanpo gelditzen diren unitateak honako hauek izatea:

EUSKAL HERRIA 65	
1	Argien hornidura NEBRASKA, 32LED @700mA 71W 4000 T3 PREMIUM
EUSKAL HERRIA 64-83	
11	Argien hornidura NEBRASKA, 32LED @700mA 71W 4000K T3 PREMIUM

BIGARRENA: Jarraian aipatzen diren eskaintzak prozesutik kanpo uztea, udal teknikariaren txostenaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratazio Legearen 139 artikuluari jarraiki, ez dutelako betetzen aurkeztutako materialak pleguetan jasotako gutxieneko baldintzak (Errekurtso Kontraktualen Auzitegi Administratibo Zentralaren 1020/2016 ebazpenaren baitan derrigorrez kanporatuak izan behar dira):

GOOD WORK
NEW ENERGY CONCEPT 2020 SL
IMASD ENERGIAS S.L
AMARA S.A.U.

Kanporatzearen arrazoiak honako hauek dira, Ingurumen, Nekazaritza eta Merkataritza teknikariaren txosten teknikoaren baitan:

1. I+D ENERGIAS:

ENERLUM CITYLUM-58-N PR 10Y 61W 7703lm 4000K IP66 IK10 honen antzeko: BENITO NORDIC 32LED @700mA 71W 4000K T2 PREMIUM IK09 IP66 8449lm 119lm/W ez dator bat fitxa teknikoarekin

ENERLUM CITYLUM ereduak , fitxa teknikoan datozenak ez dira suspenditu.

ENERLUM APLIQUE APK-15 15W proposatzen du honen antzeko: Performance in Lighting MULTI+3PC LED 16W 4000K WH87, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ENERLUM NEWEN-40-N PR 10Y 18LED 38W proposatzen du honen antzeko: BENITO ELIUM 24LED @700mA 53W 4000K T3 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du ENERLUM VILLA-G45-N+FAROL 50W 4000K honen antzeko: BENITO NEOVILLA 24LED @700mA 53W 4000k T2 PREMIUM, , ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du ENERLUM VILLA-G45-N 50W 4000K honen antzeko: BENITO RETROFIT 53W 4000k T3 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du ENERLUM NEWEN-65-N PR 10Y 54LED 58W honen antzeko: BENITO ELIUM 32LED @700mA 71W 4000K T3 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du ENERLUM PTE-121-N 18W honen antzeko: GEWISS SMART3 1200mm 20W 4000K, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

AMARA:

Proposatzen du PLAFON REDONDO DE LUMINALIA 15W honen antzeko: Performance in Lighting MULTI+3PC LED 16W 4000K WH87, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du ORNAMENTAL DEVA-S DE LUMINALIA 30W 3900lm honen antzeko: BENITO NORDIC de 16LED @700mA 35W 4000K T2 PREMIUM ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du ORNAMENTAL DEVA-S DE LUMINALIA 50W 6500lm honen antzeko: BENITO NORDIC de 24LED @700mA 53W 4000K T2 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du VIAL CARES S DE LUMINALIA 40W 5200lm honen antzeko: BENITO ELIUM de 24LED @700mA 53W 4000K T3 PREMIUM ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du ORNAMENTAL ONIS DE LUMINALIA 50W 6500lm honen antzeko: BENITO NEOVILLA 24LED @700mA 53W 4000K T2 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du VIAL CARES M DE LUMINALIA 80W 10400lm honen antzeko: BENITO ELIUM 48LED @700mA 106W 4000K T3 PREMIUM ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

2. NEW ENERGY:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Proposatzen du AIRIS SIGNUM PESCADOR 70W honen antzeko: BENITO NORDIC 32LED @700mA 71W 4000K T2 PREMIUM ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du AIRIS SIGNUM PESCADOR 50W 4000K honen antzeko: BENITO NORDIC 24LED @700mA 53W 4000K T2 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du AIRIS SIGNUM VILLA 50W 4000K honen antzeko: BENITO NEOVILLA 24LED @700mA 53W 4000K T2 PREMIUM ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du AIRIS PRAGMA 50W 4000K honen antzeko: BENITO RETROFIT 53W T2 4000K PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du AIRIS KIRA 70W 4000K honen antzeko: BENITO ELIUM 32LED @700mA 71W 4000K T2 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du AIRIS TITANIUM 2 100W 4000K honen antzeko: BENITO ELIUM 48LED @700mA 106W 4000K T3 PREMIUM ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

3. GOODWORK INTERNATIONAL:

Proposatzen du GW ECO CEILING DAY LIGHT 12W, BI. Natural, D300XCH80mm, 110/220V AC 120-140° honen antzeko: Performance in Lighting MULTI+30 PC LED 14W 4000K WH87, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du GW VIALIA STREET LIGHT 60W, BI. Natural, Retrofit, 90-305V AC honen antzeko: BENITO NORDIC 32LED @700mA 71W 4000K T2 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du GW VIALIA STREET LIGHT 25W, BI. Natural, Retrofit, 90-305V AC honen antzeko: BENITO NORDIC 16LED @700mA 35W 4000K T2 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du GW VIALIA STREET LIGHT 40W, BI. Natural, Retrofit, 90-305V AC honen antzeko: BENITO NORDIC 24LED @700mA 53W 4000K T2 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du GW VIAL STREET CUBE 40W, BI. Natural, 90-305V AC honen antzeko: BENITO ELIUM 24LED @700mA 53W 4000K T3 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Proposatzen du GW VIALIA STREET LIGHT 40W, BI. Natural, Retrofit, 90-305V AC honen antzeko: BENITO NEOVILLA 24LED @700mA 53W 4000K T2 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du GW LED STREET PLATE/250 40W, BI. Natural, honen antzeko: BENITO RETROFIT 53W 4000K T3 PREMIUM ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du GW VIAL STREET CUBE 60W, BI. Natural, 90-305V AC honen antzeko: BENITO ELIUM 32LED @700mA 71W 4000K T3 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

Proposatzen du GW VIAL STREET CUBE 100W, BI. Natural, 90-305V AC, honen antzeko: BENITO ELIUM 48LED @700mA 106W 4000K T3 PREMIUM, ez dator bat plegu teknikoan eskaturiko potentziarekin

HIRUGARRENA: Berriro kalkulatzeko proposamenen puntuazioak, lizitaziotik kanpo geratu diren 12 unitateak ez direlako kontuan hartu behar. Hori horrela, hau da behin betiko puntuazioa:

PUNTUAZIOA DENERA					
ESKAINZA	IZENA	ESKAINZA EKONOMIKOA (gehienez 40)	EPEA (Gehienez 10)	BERMEA (gehienez 10)	DENERA
1	LEYKOLAN S.L.	26,714	10	10	46,71
2	SETALDE	21,471	7,5	10	38,97

LAUGARRENA: Onartzea LEYCOLAN S.L. enpresari esleitzea argiteri publikoaren hornidura, prezio honetan:

BEZ gabe: 48.992,44 €
BEZ : 10.288,41€
DENERA. 59.280,85 €

BOSGARRENA: Leycolan S.L enpresari honako dokumentazio hau aurkezteko eskaera egitea:

- Behin betiko berme gisa 2.449,62 eurotako kopuruaren ordainketaren ziurtagiria aurkeztea (KUTXA ES48 2095 5043 94 1063684178 edo abal bidez)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Plegu Administratiboko 32.2 artikuluan aipatzen diren dokumentu eta ziurtagiri originalak aurkeztea.

SEIGARRENA: Erabaki honen berri eman lizitazioan parte hartu duten enpresa denei eta kontratazio profilean argitaratu erabakia.

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaituzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita hamabost direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut

ERANSKINAK

I ERANSKINA

KONTRATU MOTA:	OBRAK
PROZEDURA:	IREKIA (156 ART.)
ARAUPEKO KONTRATUA	BAI <input type="checkbox"/> EZ <input checked="" type="checkbox"/>
ERREKURTSO BEREZIPEKO KONTRATUA	BAI <input type="checkbox"/> EZ <input checked="" type="checkbox"/>

Tramitazioa arrunta presakoa
Tramitazio aurreratua

Espediente kodea:

2018KAPI0004

BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

EZAUGARRIEN TAULA

1.- BOTERE ESLEITZAILEA	
Administrazio kontratatzailea	IBARRAKO UDALA
Kontratazio organoa	TOKIKO GOBERNU BATZORDEA
Departamentua edo kudeaketa zerbitzua	Hirigintza saila
Departamentuaren edo kudeaketa zerbitzuaren helbidea	San Bartolome Plaza, 2 20400 IBARRA
Helbide elektronikoa	hirigintza@ibarra.eus (plegu teknikoak) idazkaria@ibarra.eus (plegu administratiboa)
Ibarrako udalaren helbide eta ordutegia	San Bartolome Plaza 2, 20400 IBARRA Ordutegia: 8:00-14:00
Kontabilitate arloan eskumena duen administrazio organoa	Kontu – hartzailtza Saila

2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA: <http://www.ibarra.eus/kontratatzailearen-profila>

3.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da Belabieta kiroldogiko terrazak iragazgaitzeko eta fatxadaren estaldura berritzeko obra lanak. Xedearen zehaztasuna: baldintza teknikoen pleguan jasota dagoen memoria teknikoa.

Sortaka lizitatzeko aukera	BAI		
	EZ	x	

JUSTIFIKAZIOA: Teknikoki ez da komeni inpermeabilizazio eta igeltsaritza lanak bakoitza bere aldetik egitea, alde bakoitzaren exekuzioa egoki egitea zaildu dezake eta berme eskakizuna zaildu dezake. Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, 99.3 b).

LOTE	ZEHAZTAPENA	AURREKONTUA BEZ GABE
1	Iragazgaitzea eta fatxaden konponketa	84.629.65 €

LOTE	KODE CPV	ZEHAZTAPENA
1	45261000	Eraikinen iragazgaitzea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4.- KONTRATU MOTA

KONTRATU MOTA	OBRA
---------------	------

5.- LIZITAZIO AURREKONTUA

Prezioa zehazteko sistema	Prezio unitarioak	X
	Kontratuaren parte bat oroharreko	
	Kontratu osoa oroharreko prezioan	
Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZa barne)	102.401,87 euro	
Lizitazioko oinarritzko aurrekontuaren xehapena	<ul style="list-style-type: none">Obrak gauzatzeko aurrekontua: 71.117,35 €Enpresaren gastu orokorrak eta industria etekina %19 13.512,30 €BEZ %21 17.772,22 €	
(ondasun bidezko ordainketa) EZ		

6.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZa KANPOAN)

84.629,65 € PLEGU HONETAN JASOTAKO ALDAKETAK BARNE.

7.- BAJA AUSARTEGIA (149 ART)

BAI

EZ

X

FORMULA APLIKAGARRIA: Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak , 85 art.an jasotakoa.

8.- FINANTZAKETA

Portzentajea

Ibarrako Udala

%100

9.- URTEROKOAK

EKITALDIA	AURREKONTU PARTIDAK	ZENBATEKOA
2018	1 0000.622.342.00.00 2018	102.401,87 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontratuaren xede diren obrak 2018ko aurrekontu orokorreko 10000.622.332.00.00 partidatik finantzatuko dira.

10.- BETETZE/IRAUTE EPEA

Obraren hasiera: 2018ko urriaren 15ean aurreikusten da

Obraren exekuzio epea: 45 lanegun

Epe partzialak	BAI	
	EZ	x

11.- LUZAPENA

BAI	
EZ	X

12.- ORDAINTZEKO ERA

Obra ziurtagiria edo kontratuan xedaturikoaren adostasuna egiaztatzen duten agiriak onartu eta hogeita hamar eguneko epean.

Interesen sortzapen konputua hasi ahal izateko, kontratistak faktura aurkeztu beharko du dagokion administrazio erregistroan eta indarrean dagoen legedia betez faktura elektronikoari dagokionean, betiere, hogeita hamar eguneko epean hornigaia entregatu edo zerbitzua ematen denetik hasita.

13.- BERME EPEA

BI URTEKO epea ezartzen da harrera formala egiten denetik hasita, bermealdi gisa, Sektore Publiko kontratuen legeak aurreikusitako ondorioetarako.

Dena den, bermealdi epea amaitu ondoren obra bertan behera gelditzen bada eraikuntzako ezkutuko akatsengatik, kontratistak ez duelako kontratua bete, kalte-ordainengatik erantzun beharko du hamabost urteko epean, harrera egiten denetik kontaktzen hasita. Behin epe hori igarota kalterik ez bada adierazi, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat emango da.

Berme hauez gain, indarrean izango dira EAL, azaroaren 5eko 38/1999 Eraikuntzaren Antolamendu Legear



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

aurreikusitakoak.

14.- HARRERA ETA ENTREGA/BETETZE LEKUA

Belabieta kiroldegia , San Bartolome 7, Ibarra.

15.- ALDAERAK ONARTZEA

BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input type="checkbox"/>	X	<input checked="" type="checkbox"/>
-----	--------------------------	----	--------------------------	---	-------------------------------------

Baldintzak, modalitateak eta alderdiak

16.- PREZIO BERRIKUSPENA

BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input type="checkbox"/>	X	<input checked="" type="checkbox"/>
-----	--------------------------	----	--------------------------	---	-------------------------------------

Berrikuspen formulak:

17. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

AGIRI ADMINISTRATIBOAK: Plegu honetako 18. atalean aipatutakoa.

JUDIZIO BALORAZIO IRIZPIDE-PROPOSAMENA: EZ

BALORAZIO AUTOMATIKOKO IRIZPIDE PROPOSAMENA: Plegu honetako 20 klausulan ezarritakoa.

AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA: 26 EGUNEKO EPEA DAGO KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN ARGITARATZEN DENETIK.

- Proposamenak aurkez daitezke 1 apartatuan adierazitako ordu eta tokian. Postetxe bidez ere aurkez daitezke (fax egiaztagiria erantsi beharko da agiriak aurkeztu direneko egun eta ordua adieraziz; ez bada egiaztagiririk aurkezten gehienezko epe eta orduan, ez aurkeztutzat emango da)

18.- BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK, KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA, ETA KAUDIMEN PROFESIONAL EDO TEKNIKOA

1) BAIMEN EDO GAIKUNTZA ENPRESARIAL EDO PROFESIONALAK

(SPKLren 65. artikulua)

Bidezkoa da:	<input type="checkbox"/>	BAI	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	EZ	X

KAUDIMEN TEKNIKO ETA EKONOMIKOA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Enpresariak egiazta dezake kaudimen tekniko eta ekonomikoa bere sailkapenaren bidez edo kaudimen tekniko- ekonomikoa betetzeko ondoren adierazten diren baldintza batzuen bidez:

LEHEN AUKERA. SAILKAPENA:

Enpresariak egiazta dezake kaudimen tekniko eta ekonomikoa Sektore Publikoko Lizitatuak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta. Dagokion talde edo azpitalde kontratista sailkapenak egiaztatuko du bere kaudimen tekniko eta ekonomikoa.

Egiaztatu ahalko da ondorengo kategorietan inskribatuta:

TALDEA	AZPITALDEA	KATEGORIA	
		2020ko urtarrilaren 1a baino lehen aurkeztu behar diren eskaintzarako bi sailkapen-sistemak baliozkoak dira kategorai egiaztatzeko	
C Eraikuntzak	6 eta 7 Zoladurak eta Iragazgaitzeak	B 60.000€ <x≤120.000€ 773/2015 ED baino lehenagoko tipologia	1 ≤150.000€ Tipologia berria

BIGARREN AUKERA

Aurreko ataleko inskripziorik ez badu, kaudimen tekniko eta ekonomikoa agiri hauen bidez egiaztatu beharko da:

A)KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko:

A.1. Ekonomia- eta finantza:kaudimena egiaztatzeko irizpidetzat hartuko da hautagiaren urteko negozio bolumena,zeina, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, 84.629.65 € euro izan behar du gutxienez.

Merkataritza Erregistroan edo dagokion erregistroan aurkeztutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Kontuakerregistro ofizialetan aurkeztera behartuta ez dauden enpresariak legezko kontabilitate liburuak aurkez ditzakete, ordezkot egiaztapen gisa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

B) KAUDIMEN PROFESIONAL EDO TEKNIKOA

Lizitatuzaileari eskatzen zaio egiazlatzeko gutxienez agiri honen xede denaren antzeko izaera duen irazgaizte obra bat egin duela gehienez azken bost urtean, betiere zenbatekoa kontratu honetan balioetsi den balioa (84.629.65 €).BEZ gabe) baino txikiagoa izan gabe

Antzeko izaera duten obra identifikatzeko kontuan izango da, eraberritze obra izatea eta terrazaren gutxienerako azalera 100 m²koa izatea kontuan hartuko da.

Egiaztatuko da <<gauzatze onaren egiaztagiria>> aurkeztuta, zeinak biltzen baitituzte zenbatekoa, datak, azalera eta obren jasotzaileak.

19.- BITARTEKOAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA

EZ

20.- AZPIKONTRATATZEA

-Azpikontratatzea aurreikusten den kontratu zatia eskaintzan adierazteko obligazioa: Lizitatuzaileek bere eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zer zati azpikontralalzea aurreikusi duten, azpikontratazioaren diruzenbatekoa eta lan hori egingo duten azpikontratisten izena edo enpresa profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definituta) zehaztuta.	BAI	X	EZ	
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----	---	----	--

- Azpikontratisten aldeko zuzeneko ordainketa	BAI		EZ	X
-----------------------------------------------	-----	--	----	---

- Azpikontratatu ezin diren eginkizun kritikoak	BAI		EZ	X
-------------------------------------------------	-----	--	----	---

Azpikontratatu ezin diren eginkizun kritikoen deskribapena:

21.- BERMEAK

BEHIN-BEHINEKOA	BAI		Zenbatekoa:
	EZ	X	
BEHIN BETIKOA	BAI	X	Zenbatekoa: adjudikazioaren prezioaren %5 (BEZ kanpo)
	EZ		



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

OSAGARRIA	BAI		Zenbatekoa:
	EZ	x	

22- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

1) FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

Formulen bidez kuantifikatu daitezkeen alderdiek (100 puntu arte).

a) Proposamen ekonomikoa (0-80 puntu).

- Balorazioa egingo da gehienezko puntuazioa eskaintza hoberenari emanda (zenbateko txikiena aurrekontuetan)
- Gainerako eskaintzei ondorengo formula aplikatuko zaie puntuazioa lortzeko:
 - . FORMULA: $OV = Z \times Ob / OI$
 - OV: Baloraturiko eskaintza
 - Z: Gehienezko puntuak
 - Ob: eskaintza ekonomiko baxuena
 - OI. Lizitzailearen eskaintza

Hurrengo suposizioetan aurkitzen diren proposamenak eskaintza proportziotik kanpo edo ez ohikoa hartuko dira:

- Lizitzaile bakarrak parte hartuz, portzentajezko 25 unitate baino gehiagotan lizitazio-proposamenatik beherakoa denean.
- Bi lizitzailek parte hartzen dutenean, bestea baino portzentajezko 20 unitate merkeagoa dena.
- Beste kasu guztietarako goiko beherapena onartutako eskaintzetako batezbesteko % 10etan ekartzen duten proposamenak. Zirkunstantzia hau ez da bazterre-arrazoia izango baldin eta lizitzaileak aski justifikatzen badu bere proposamena bideragarria dela (kalkuluen ekarpenaren eta egoki estimatzen diren argudioen bitartez). Puntuak gainerako eskaintzei emango zaizkie proportzionalki. Proposamenaren bideragarritasuna akreditatu ez geratzearen kasuan, hau ez da kontuan hartuko eta formula ez da aldatuko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

b) OBRA HASIERA: 20 puntu

Obra hasteko gehienezko epea urriaren 15 da. Baloratuko da obra hastea egun hori baino lehen eta horretarako, adierazi egin beharko da zenbat egun lehenago hasten den.

Hau da erabiliko den formula:

$$PV = 20\text{puntu} \times n^{\circ}V/n^{\circ}\text{Max.}$$

PV= Baloratzeko formula puntuaketa

$n^{\circ}V$ =Aurreratzen den egun kopurua proposamean-

$n^{\circ}M$ = eskaintza hoberenak aurkezturiko egun aurreratu kopurua. (Egun gehiena)

Berdinketa apurtzeko irizpideak: ez dira ezarri.

23.- BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Plegu honetako 37 klausulan adierazitakoaz gain: .

1.- Eskaintzan, lan hau egiteko izango duten talde teknikoa (berezkoa edo azpikontrataturakoa) osatzen duten pertsonen zerrenda adieraziko da xehetasunez eta gutxienez obra Arduradun bat lan-egun osoan, hau da, % 100eko dedikazioarekin izendatuko da.

2.- Obra urriaren 15ean hastea aurreikusten da. Kontratazio prozedura, beharrezkoak diren izapideak egiteko, luzatuko balitz udalak aipaturiko data eguneratzeko aukera izango du.

3.-Behin betiko esleipena jakinarazten denetik hamar egun naturaleko gehienezko epean, kontratistak kontratazio organoari aurkeztuko dio lanen programa eta segurtasun plana.

4.- Aseguruak. Erantzunkizun zibileko aseguruak 102.401,87 euro

Eraikuntzako arrisku orotariko aseguruak:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- esleipen-zenbateko osoaren arabera (BEZa barne)

- proiektuan izandako aldaketak direla medio kontratuaren zenbatekoa aldatzen bada, kapital bermatua proportzio berean aldatuko da.

5.- Obraren egikaritzea amaitu dela ohartarazteko epea: 10 egun baliodun

24.- AURREIKUSITAKO KONTRATU ALDAKETAK

BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input checked="" type="checkbox"/>	
-----	--------------------------	----	-------------------------------------	--

25.- KONTRATUKO FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

Kontratu honi aplikatu dakizkiokeen funtsezko betebeharrak dira SPKLn eta Baldintza-agiriaren klausuletan aurreikusitakoak.

26.- ZEHAPENAK

Plegu honetako 38 klausulan ezarritakoak.

27.- LIZITATZAILEAK KONPENTSATZEKO ZENBATEKOA

Ez da ezarri.

28.- PRESTAKETA LANEI DAGOZKIEN KONTURAKO ORDAINKETAK

EZ

29.- BESTE ZEHAZTAPEN OSAGARRI BATZUK

Ez

30.- KONTRATAZIO MAHAIA

LEHENDAKARIA: Mikel Agirrezabala, Alkatea

1 KIDEA: Lierni Muñoa (udaleko kontuhartzailea)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2. KIDEA: Naia Ruiz de Eguino (Udaleko idazkaria)

3. KIDEA: Itziar Basabe (udal aparejadorea)

KONTRATAZIO MAHAIAREN IDAZKARIA: Arantxa Arrue



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

AURKIBIDEA

- 1.- Kontratuaren xedea
- 2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak
- 3.- Litzitazioaren oinarrizko aurrekontua
- 4.- Kontratuaren balio zenbatetsia
- 5.- Kontratuaren prezioa
- 6.- Kreditua izatea
- 7.- Obra egiteko epea eta lekua
- 8.- Prezio berrikuspena
- 9.- Kontratatzailearen profila
- 10.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak
- 11.- Errekurtso araubidea

II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

- 12.- Espediente mota eta litzitazio modua
- 13.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzailerak
- 14.- Behin-behineko bermea
- 15.- Proposamenak aurkeztea
- 16.- Lizitatzailerari informazioa ematea
- 17.- Proposamenen edukia
- 18.- BAT zk.ko gutunazala: "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA"
- 19.- BI zk.ko gutunazala: "BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"
- 20.- HIRU zk.ko gutunazala: "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA"
- 21.- Aldaerak onartzea
- 22.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak
- 23.- Kontratazio mahaia
- 24.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea
 - 24.1.- BAT zenbakiko gutunazalak irekitzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea
 - 24.2.- BI zenbakiko gutunazalak irekitzea eta aztertzea (bakarrik BI zenbakiko artxibo elektronikorik badagoenean)
 - 24.3.- HIRU zenbakiko gutunazalak irekitzea eta aztertzea
 - 24.4.- Kontratazio mahaiaren aktak
- 25.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta lizitatzailerak ukituei jakinaraztea
- 26.- Esleipen irizpideak
- 27.- Eskaintzak baloratzea
- 28.- Eskaintzak argitzea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 29.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak
 - 30.- Prozedurako ondorengotza
 - 31.- Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia eta esleipen prozeduran Administrazioak atzera egitea
 - 32.- Esleipena
 - 32.1.- Eskaintzen sailkapena eta esleitzeko proposamena
 - 32.2.- Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatzailerak aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko justifikazio dokumentazioa aurkeztea
 - 32.3.- Behin betiko bermea
 - 32.4.- Esleipena
 - 33.- Kontratua formalizatzea
- III. KAPITULUA - KONTRATUA BETETZEA**
- 34.- Kontratuaren arduraduna
 - 35.- Kontratistaren ondorengotza
 - 36.- Kontratua besteri lagatzea
 - 37.- Betetze baldintzak eta betebeharrak
 - 37.1.- Baldintza orokorrak
 - 37.2.- Kontratua betetzeko baldintza bereziak
 - 37.2.1.- Lan eta gizarte arloko baldintza eta ingurumenaren babesaren arlokoak
 - 37.2.2.- Bete beharreko hizkuntza baldintzak
 - 37.2.3.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun esparruko baldintzak
 - 37.2.4.- Baldintzak azpikontratazioan
 - 37.2.5.- Laneko segurtasun eta osasun esparruko baldintzak
 - 37.2.6.- Informazioaren segurtasunaren esparruko baldintzak
 - 37.3.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak
 - 37.4.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak
 - 37.5.- Obraren instalazio eta prestazio osagarrietarako baldintzak
 - 3.6. Lan programa
- 38.- Zehapenak: berandutzagatikoa eta beste batzuk
- 39.- Kontratuaren aldaketak
 - 39.1.- Aldaketa aurreikusiak
 - 39.2.- Aldaketa aurreikusi gabeak
- 40.- Kontratistari egin beharreko ordainketak
- 41.- Mantentzea
- 42.- Kontratua etetea
- 43.- Harrera eta berme epea
 - 43.1.- Harrera eta likidazioa
 - 43.2.- Berme epea
 - 43.3.- Bermea itzultzea
- 44.- Kontratua suntsiaraztea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK
- II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK
- III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA
ADIERAZTEN DUTE
- IV. ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO ADIERAZPENAREN EREDUA
ADIERAZTEN DU
- V. ERANSKINA.- ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA
ADIERAZTEN DU
- VI. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTU ETA DATU AURKEZTUEI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIRAKO EREDUA
ADIERAZTEN DU
- VII. ERANSKINA. - ABAL EREDUA
- VIII. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

I. KAPITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

1.- Kontratuaren xedea

1.- Kontratuaren xedea ezaugarrien taulako **3. apartatuan** deskribatutako OBRA da (SPKLaren 25 eta 13 art.) , betiere ezaugarri teknikoei buruzko baldintza-agirian ezarritako baldintzekin bat. Hala badagokio, kontuan hartu beharko dira Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL) Bigarren Liburuko I. tituluaren aurrekustean dituen balizkoetan tramita daitezkeen aldaketak.

Apartatu horretan horrela ezartzen denean, sortaka egingo da lizitazioa, bertan deskribatzen diren baldintzak eta mugak aplikaturik, SPKLren 99. artikulua dionarekin bat.

2.- Kontratuen Hiztegi Komune (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa ezaugarrien taulako **3. apartatuan** dago jasota.

2.- Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak

Kontratu honekin beteko dira Baldintza Teknikoen Agirian deskribatuta dauden premia edo beharrak, zehazki bertan deskribatzen den obraren bitartez.

3- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua

1.- Ezaugarrien taulako **5 apartatuan** balio erantsiaren gaineko zerga barne harturik maximotzat adierazten dena da kontratuko lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren zenbatekoa.

2.- SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, ezaugarrien taulako **5. apartatuan** adierazten dira, hala dagokionean, lizitaziorako oinarritzko aurrekontua zehazteko kontuan hartu diren kostu zuzenak, zeharkakoak eta bestelako gastuak.

4.- Kontratuaren balio zenbatetsia



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikulua arabera kalkulatu eta ezaugarrien taulako **6. apartatuan** jaso, kontuan hartu da bai kontratu honi aplikatuko zaion esleipen prozedura eta izango duen publizitatea aukeratzeko bai pertsona fisiko eta juridiko lizitatzailen (aurrerantzean lizitatzailak) gaitasun baldintzak eta aplikatzeko errekursoen araubidea finkatzeko. Balio zenbatetsi horrek, horrela aurreikusten den kasuetan, hurrenez hurren ezaugarrien taulako **11. eta 24. apartatuetan** jasotzen diren aukera balizko oro jasoko ditu, izan daitezkeen luzapenekin eta kontratuko aldaketa posibleekin batera.

2.- SPKLren 101.5 artikuluan aurreikusien ondorioetarako, ezaugarrien taulako **5. apartatuan** adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabili den metodoa.

5.- Kontratuaren prezioa

1.- Kontratuaren prezioa esleipenetik ateratzen dena izango da. Balio erantsiaren gaineko zerga partida independente gisa jaso beharko du. Kontratuaren prezioan sartutako joko dira aplikatu beharreko edozein motako tributu, tasa eta kanonak, bai eta baldintza-agiri honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzeak esleipendunari dakartzkion gastu guztiak ere.

2.- SPKLren 102.4 artikuluan aurreikusien ondorioetarako, ezaugarrien taulako **5. apartatuan** adierazten da kontratuaren prezioa zehazteko erabili den sistema.

3.- Prezioaren zehaztapena oroharreko prezioan egiten den kontratuaren prezioa enpresa esleipendunak eskainiko du kontratuaren prezioa eta hura inoiz ez da lizitazio aurrekontutik gorakoa izango.

4.- Prezioaren zehaztapena prestazioko osagai edo unitateen prezio unitarioen bitartez egiten den kontratuaren:

a) Xedea osatzen duen unitate kopurua zehatz definitzen denean, esleipendunak eskainitako prezio unitarioa unitate kopuruaz biderkatuz ateratzen den emaitza izango da prezioa.

b) Xedea osatzen duen unitate kopurua zehatz definitzen ez denean:

1) Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainia izango da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2) Kontratuaren gehienezko mugako aurrekontua finkatuko da, nahiz aurrekontu horretako gastu efektiboa Administrazioaren behar errealek baldintzatuta egongo den; izan ere, Administrazioak ez du obligaziorik izango ez unitate kopuru jakin bat eskatzeko, ezta aurrekontua osorik gastatzeko ere.

5.- Ezaugarrien taulako **5. apartatuan** horrela adieraziz gero, eskaintza ekonomikoak onartuko dira, prezio partzialak emanda horietan lizitazioko oinarrizko aurrekontuan jasotzen diren prezio unitario partzialekiko igoera portzentaje batez; dena den, ateratzen den gehienezko prezioak ezingo du, inoiz, oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa gainditu.

6.- Kreditua izatea

1.- Behar adinako kreditu egokia dago, kontratua gauzatzeko kalkulaturako gehieneko gastuari aurre egiteko. Kontratua aurrekontuko partiden kargura finantzatuko da, eta ezaugarrien taulako **9. apartatuan** ezartzen diren urteroko zenbatekoekin bat.

2.- Ezaugarrien taularen hasieran aurreikusiarekin bat, eta SPKLren 117.2 artikuluan aurreikusiararen indarrez, espedientea aurrez tramititzen bada, kontratuaren esleipenak etendura baldintza bat izango du, zehazki behar beste kreditu egokia izatea, dagokion ekitaldian kontratuari darizkion obligazioak beteko direla bermatzearen.

7.- Obra egiteko epea eta lekua

1.- Obraren entrega partzial eta osorako epeak ezaugarrien taulako **10. apartatuan** ageri direnak dira edo, bestela, enpresa esleipendunak formulatzen dituenak, eskaintzek epe osoa edota epe partzialak murriztea proposa dezaketen kasuan. Epe horiek guztiak kontratua formalizatzen denetik edo kontratu agirian finkatzen den datatik hasiko dira kontatzen.

2.- Kontratua luzatu ahal izango da, baldin eta ezaugarrien taulako **11. apartatuan** horrela jasota badago. Luzapena derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat SPKLren 29. artikuluan adierazitakoari jarraituz.

3.- Ezaugarrien taulako **14. apartatuan** adierazitako lekuan emango da obra.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

8.- Prezio berrikuspena

- 1.- Bidezko bada, berrikuspena horrela adieraziko da ezaugarrien taulako **16. apartatuan**, formula aplikagarria jasoko baitu.
- 2.- Prezio berrikuspena SPKLren 103. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzetan egingo da.

9.- Kontratatzailearen profila

1.-SPKLaren 63 art.aren arabera, kontratu jardueraren gardentasuna eta beharrezko agirietara sarbide publikoa izatea ziurtatzeko, hala nola, baldintza administratiboen plegua, baldintza teknikoak eta kontratuari buruzko gainerako informazioa, hori guztia Eusko Jaurlaritzaren Kontratazio Plataformaren kontratatzailearen profilean emango da argitara: <http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-home/es>

Kontratu honi buruz kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko den informazioa ezaugarrien taulako **2. apartatuan** adierazten den helbide elektronikoan kontsultatu ahal izango da.

- 2.- Herri administrazioen kontratuak esleitzeko lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.
- 3.- Kontratatzailearen profilean, kontratua esleitzeko deialdiari buruzko informazioa emango da, klausula administratibo partikularren baldintza agiriekin eta, bidezkoa, bada, dokumentazio osagarriarekin batera.
- 4.- Kontratuak arau harmonizatupean daudenean, lizitazioa Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean ere argitaratuko da, SPKLren 135. artikuluari jarraikiz.

10.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak

1.- Kontratu honek izaera administratiboa du, SPKLren 25. artikuluan arabera. Aldeak baldintza agiri honetan eta dena delako proiektuan jasotakoari espresuki lotuta gelditzen dira.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.- Baldintza administratibo partikularren agiriak eta ezaugarri tekniko partikularren agiriak kontratu izaera dute, eta, beraz, esleipendunak sinatu beharko ditu, adostasun seinale gisa, kontratuaren formalizazio egintzan.

3.- Baldintza agirietan jaso gabe dauden alderdietan, kontratua honako hauen bidez araututa geldituko da: Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL); maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena; eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO), urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaz onartu zena eta abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuaz aldatu zena, aurrekoaren aurka ez doan guztian. Gainera, araututa geldituko da Euskal Autonomia Erkidegoan (apirilaren 7ko 3/2016 Legea, Kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzen dituena) eta Gipuzkoako Foru Aldundian kontratazioa arautzen duten beste edozein xedapen aplikagarriren bidez ere. Arau horiek SPKLren xedapen indargabetzaileak eragin ez duen guztiari dagokionez aplikatuko dira.

4.- Nolanahi ere, aurretik aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak SPKLren aurka ez doazen guztiak aplikatuko dira.

5.- Ordezko gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

6.- Baldintza-agiri honen eta kontratuko beste dokumentuetako edozeinen artean desadostasunik izanez gero, baldintza-agiri hau nagusituko da.

7.- Kontratuko klausulak, kontratuaren parte diren bestelako dokumentuak eta gauza hitzartua betetzeko unean aplikagarriak diren jarraibide edo arauak, edo horien alderdiren bat, ez ezagutzeak, ez du esleipenduna horiek guztiak betetzetik salbuesten.

8.- SPKLren 190. artikuluan aurreikusiarekin bat, kontratazio organoak du kontratu administratiboak interpretatzeko eta hauek betetzeko unean sortzen diren zalantzak erabakitzeko eskumena. Era berean, egindako kontratuak alde bakarretik aldatu ahal izango ditu, eta horiek suntsiaraztea erabaki ahal izango du, betiere SPKLk eta berau garatzeko xedapenek jasotzen dituzten mugen barnean eta baldintzetan eta aipatzen dituzten ondorioekin.

9.- Kontratua aplikatu edo interpretatzerakoan, gauzatzean, aldatzean, betetzean edo suntsiaraztean sor litezkeen auziak Foru Aldundiko organo eskudunek erabakiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dituzte, kontratistari entzun ondoren, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOk 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Organo horiek hartzen dituzten erabakiak betearazi beharrekoak izango dira berehala.

10.- Interesdun baten eskariz hasitako prozeduretan, berariaz bestelakorik ezarri ez bada eta horien xedea diru zenbatekoak erreklamatzeari, administrazio-prerrogatibak baliatzea edo administrazio-kontratu baten gauzatzeari, burutzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai bada, ebazpena emateko aurreikusitako epea ebazpena jakinarazi gabe igaroz gero bere eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsizat jo ahal izango du interesdunak, nahiz eta bere horretan iraungo duen ebazteko betebeharrak.

11.- Errekurtso araubidea

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, sektore publikoko araubide juridikoari dagokionez indarrean dagoen erregulazioak, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legeak aurreikusten dituzten errekurtso arruntak jarri ahal izango dira.

II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

12.- Espediente mota eta lizitazio modua

1.- Kontratazio espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozedura eta tramitazioari jarraikiz garatuko da.

2.- Espedientearen presako tramitazioak berekin ekarriko du lizitazio eta esleipenerako ezarritako epeak murriztea, SPKLren 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako erregelekin bat.

13.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzailerak

1.- Administrazioarekin kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeke inolako galarazpenik eragiten ez badie, eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Araudi aplikagarriak ezartzen duela-eta esleitzailari eskatzen zaionean bere antolakundeari, irabazien xedeari, finantzaketa sistemari edota beste batzuei buruzko zenbait baldintza betetzea esleipen prozeduran parte hartu ahal izateko, alderdi horiek prozeduran aurkezten denean egiaztatu beharko ditu.

2.- Proposamenak aurkezteko epearen amaiera egunean, lizitatzailleek ez dute izango SPKLk 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekurik. Kontratua esleitzeko garaian ere ez die kontratatzeko debekuetako batek berak ere eragin behar.

3.- Lizitatzailleek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduer-esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

5.- Era berean, Administrazioak kontratuak egin ahal izango ditu aldi baterako eratzen diren enpresa elkarteekin; horrelakoetan, ez da beharrezkoa kontratua esleitzen zaion arte enpresa elkarte eskritura publiko bitartez eratuta egotea.

Aldi baterako enpresa elkartei dagokienez, haien osaera aldatzen denean eta kontratua formalizatu aurretik eta ondoren gertatzen diren aldaketa kasuetan, SPKLren 69. Artikuluan, 8 atala, eta ondorengoetan jasotakoari jarraituko zaio. Horretarako, zer zirkunstantzia gertatu den jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari.

6.- Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparrua sinatu duten estatuetakoko enpresei eta Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan jasotakoa aplikatuko da.

14.- Behin-behineko bermea

1.- SPKLren 106. artikuluan aurreikusiarekin bat, aparteko egoera gisa, interes publikoko arrazoiak tarteko eta espedientean justifikaturik, kontratu honen kasuan behin-behineko bermea eratzea eskatzen bada, ezaugarrien taulako **21. apartatuan** ageri dena izango da berme horren zenbatekoa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.- Bermeen formari eta baldintzei dagokienez, SPKLren 106. eta 108. artikuluetan jasotakoa beteko da, bai eta HAKLEOren 55., 56., 57. eta 58. artikuluetan jasotakoa ere.

3.- Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta lizitatzaillei kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie.

15.- Proposamenak aurkeztea

1.- Proposamenak Ibarako udaletxean aurkeztuko dira **1 apartatuan** adierazitako helbide eta ordutegian, kontratatzailearen profilean eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) argitaratzen den lizitazio iragarkiak eman epearen barnean.

2.- Jakinarazpen eta komunikazio oro korreo elektronikoko bidez egingo dira, beraz, **ezinbestekoa da posta elektronikoko helbidea aurkeztea.**

16.- Lizitatzaillei informazioa ematea

1.- SPKLren 138.3 artikulua aipatzen duen informazio osagarri edo gehigarria eman beharra dagoenean, administrazio kontratatzaileak informazio hori eman beharko du, beranduen eskaintzak aurkezteko finkatutako mugako data baino 6 egun natural lehenago, betiere informazio eskaera mugako data hura baino, gutxienez, 12 egun natural lehenago aurkezten bada. Eskaera hori lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako **1. apartatuan** aurreikusten den helbide elektronikora zuzenduko da.

2.- Presazkotzat jo diren espedienteen kasuan, eskaintzak aurkezteko epea amaitu aurretiko gehienezko epe hori 4 egun naturalekoa izango da, erregulazio harmonizatupeko kontratuen kasuan.

3.- Baldintza agiriez edo gainerako dokumentazioaz eskatutako argibideak kontratatzailearen profilean publiko egiten diren kasuetan, erantzunak lotesleak izango dira.

17.- Proposamenen edukia



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren gutunazalean aurkeztuko ditu lizitatzailleak edo lizitatzaillearen ordezkari diharduen pertsonak.
- 2.- Gutunazal bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, gutun azalaren edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua).

18.- 1 zk.ko gutunazala: “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA”

1.- “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA” izeneko gutunazalean sartu egin beharko dira ondoren zerrendatzen diren dokumentuak, horiek guztiak jasotzen dituen aurkibidearekin batera.

- a) **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)**. SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusiarekin bat, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, **II. eranskinean** jasotako jarraibideekin bat baterik, eta lizitatzailleak edo honen ordezkariak sinatuta eta han adierazitako formulario eredura egokituta.

Enpresa lizitatzailleak beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak baliatzen dituenean, horietako bakoitzeko EKAB bat aurkeztu beharko da.

Kontratuaren gaia loteka zatitzea aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak lotetik lotera aldatzen badira, Europako kontratazio agiri bakar bat aurkeztuko da kaudimenari buruzko baldintza berberak aplikatzen zaizkion lote bakoitzeko edo lote talde bakoitzeko.

- b) **Aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa, hala badagokio**. Enpresa bi edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartearen sorturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, elkartearen osatuko duten enpresen izenak eta zertzeladak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, esleipendun gertatuz gero aldi baterako elkartearen formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta HAKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartearen osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du. Baldintza-agiri honetako **III. eranskinean** jasotzen da aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoaren eredua.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- c) Ezaugarrien taulako **17. apartatuan** adierazten diren profil eta zehaztapenei jarraiki **pertsonak eta material aldetiko bitartekoak kontratua betetzeari atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena**. Baldintza-agiri honetako **IV. eranskinean** jasotzen da eredia.
- d) **Enpresa lizitatzaileren erantzukizunpeko adierazpen espresua**, bera parte den enpresa taldeari buruzkoa eta talde bereko sozietate guztiak hartzen dituena bera, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan. Adierazpen hori aurkeztu beharko da, baldin eta ezaugarrien taulako **20. apartatuan** proposamen bati baxuegi irizteko parametroak ezartzen badira. Inongo enpresa taldetakoa ez bada, adierazpenak horixe adierazi beharko du. Baldintza-agiri honetako **V. eranskinean** jasotzen da horretarako eredia.
- e) **Lizitatzaileren izaera konfidentzialeko dokumentu eta datuei buruzko adierazpena**. Enpresa lizitatzailerek, hala dagokionean, adierazi beharko dute aurkeztutako zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak. Hori, gainera, argi adierazi beharko da (gaininprimatua, marjinan edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzailerek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzial jo daitezke, horiek hirugarren pertsona edo entitate batzuei zabaltzea lizitatzaileren interes komertzial zilegien kontrakoa izan daitekeenean edo enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean. Adierazpen hau egin ezean, dokumentu edo datuetan konfidentzialik ez dagoela ulertuko da. Baldintza-agiri honetako **VI. eranskinean** jasotzen da eredia
- f) **Behin-behineko bermea egiaztatzeko dokumentua, hala dagokionean**. Behin-behineko bermea eskatuz gero, honela egingo da horretarako gordailua:
- 1) Banku-kontuaren nazioarteko zenbakia duen KUTXA ES48 2095 5043 94 1063684178 kontuan, diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere sartu beharko da.
 - 2) Idatzoharra egindako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean, kontratazio organoaren aurrean (ikusitako abal eredia **VII. eranskinean**).

Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, elkarteko enpresa batek nahiz gehiagok era ditzakete behin-behineko bermeak, baina, denen artean, ezaugarrien taulako



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

18. apartatuan eskatzen den zenbatekora iritsi behar dute, eta elkartea osatzen duten guztiak izanik solidario bermean.

- g) **Atzerriko lizitatzailleek aurkeztu beharreko dokumentazioko berezitasunak.** Atzerriko lizitatzailleek, aurreko a) letrako erantzukizunpeko adierazpenaz gain, ondoren zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute.

Espainiarrak ez diren enpresa guztiek aurkeztu beharrekoa:

- 1) **Edozein ordenatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mende jartzeko adierazpena**, kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala dagokionean uko eginez lizitatzailari egoki dakioken atzerriko jurisdikzio foruari (SPKLren 140.1 f) artikulua).

Europar Batasunaren kide edo Europar Espazio Bakarrari buruzko Akordioaren sinatzaile ez diren estatuetakoen enpresek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- a) Enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrek edo Kotsuletxeko Bulegoak emandako **txostena**, horretan erasota lagaz, enpresak aurrez frogatuta betiere, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean izena emanda dagoela edo, bestela, tokiko trafikoa ohiz aritzen dela kontratuaren xede diren jardueren esparruan.
- b) **Elkarrekotasun txostena**, SPKLren 68. artikulua aipatua, non eta ez diren erregulazio harmonizatupeko kontratuak, zeren eta horrelakoetan txosten horren ordez Diplomaziako Misio Iraunkorren edo Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txostena beharko baita, Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile izaerari buruzkoa.

- h) **Jakinazpenak egin ahal izateko posta elektronikoko helbide baten izendatzea.**

2.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzailleek, erantzukizunpeko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Lizitatzailerak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko.

Epe hori ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzailerak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

19.- 2 zk.ko gutunazala: “BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA”

1.- Ezaugarrien taulako **17. apartatuan** aurretik eta balio-judizio baten bitartez baloratu beharreko esleipen irizpideak jaso baldin badira, lizitatzailerak 2 zenbakiko gutunazala aurkeztu beharko du, “BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA” izenarekin, horretan sartuz hartan eskatutako dokumentazioa.

2.- Artxibo honetan ez da inolaz ere sartuko HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan behar duen dokumenturik.

20.- 3 zk.ko gutunazala : “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA”

1.- “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” izeneko gutunazalean, eskaintza ekonomikoa eta formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko bestelako dokumentuak jaso beharko dira.

2.- Proposamenak **VIII. eranskinean** jasotako eredura egokitu beharko dira, eta ez da onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartze aldera funtsezkotzat hartzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, akatsak edo ezabapenak dituen proposamenik. Lizitatzailerak eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, jasanarazi behar den kasuan.

Bai eskaintza ekonomikoa bai artxibo elektroniko horietan jasotzen den bestelako dokumentazioa ezaugarrien taulako **20. apartatuan** adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko dira.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3.- Eskaintzaren batek lizitazio oinarriaren aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria badu edo enpresa lizitatzailerak berak aitortzen badu akatsak dituela eta ez dela bideragarria, kontratazio mahaiak baztertu egingo du ebazpen arrazoitu bat emanez. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo kentzea, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahiko arrazoi izango proposamena baztertzeko.

4.- Lizitatzailerak bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake, SPKLren 142. artikuluan aldaeren onargarritasunari buruz jasotakoa eragotzi gabe. Halaber, ezingo du beste enpresa batzuekiko aldi baterako elkarte eginez inolako proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan badago ere. Printzipio hau urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsi egingo dira.

5.- Proposamena enpresa elkarte batek egin denean, elkarteko enpresa guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkarien bitartez.

6.- Ezaugarrien taulako **13. apartatuak** aldaerak aurkeztea baimentzen duenean, erreferentzia gisa oinarria hartzen duen eskaintza ekonomikoaz gain eskaintza ekonomiko bat jaso ahal izango du artxibo elektronikoa honek aldaera bakoitzeko. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa, era berean, baldintza-agiri honetako [IX. eranskinean](#) ageri den ereduaren arabera formulatuko da, eta apartatu horretan adierazten diren kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

21.- Aldaerak onartzea

1.- Aldaerak onartzen diren kasuan, lizitatzailerak bakoitzak aurkeztu duen proposamen bakarrak kontratuaren xedera begira eskaintzeari egoki irizten dion adina aukera jaso ahal izango du, ezaugarri tekniko partikularren agirian finkatutako baldintza, modalitate eta ezaugarri teknikoekin, ezaugarrien taulako **15. apartatuan** laburtzen baitira. Aldaerak ezaugarrien taulako apartatu horretan bertan ezartzen den moduan aurkeztuko dira, eta ezingo dute kontratuaren lizitazioko oinarriko aurrekontua gainditu.

2.- Nolanahi ere, derrigorrezkoa izango da enpresa lizitatzailerentzat haiei eskatutako oinarriko obrari bakarrik eta literalki dagokion proposamen bat aurkeztea. Betiere, prestazioa betetzeko epea eta prezioa, biak, baldintza agiri honen hasierako



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ezaugarrien taulan jasotakoaren berdinak edo txikiagoak izan behar dira eta zehatz-mehatz bat etorriko dira lizitatuzaileak aurkezten duen lan egitarauan adierazitakoekin.

22.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak

1.- Proposamenak aurkeztuz gero, ulertuko da enpresa lizitatuzaileak goitik behera onartzen dituela baldintza-agiri honetako eta ezaugarri teknikoaren baldintza-agiriko klausulak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, bai eta kontratazio mahaia eta organoa baimentzen dituela Sektore Publikoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatu ditzaten.

Baldintza-agiriak ez onartzeak eskaintza atzera botatzea ekarriko du, ezinbestean.

2.- Lizitatuzaileek ezingo dute beren proposamena kendu 15 egun naturaletan, proposamenak irekitzen direnetik aurrera, esleipenduna aukeratzeko irizpide bakarra prezioa izan denean, edo bi hilabeteko epean, kontratua esleitzeko beste irizpide batzuk kontuan hartu direnean, SPKLren 158.4 artikuluan aurreikusiarekin. Epe hori 15 egun baliodunez luzatuko da, baxuegi iriztitako eskaintzei dagokienez SPKLren 149. artikulua aipatzen dituen izapideak bete behar direnean.

3.- Proposamen bat behar ez bezala erretiratzen bada, doloz, erruz edo zabarkeriaz jardunez gero, lizitatuzaileak ezingo du Administrazio Publikoekin kontratatu, SPKLren 71.2 artikuluan xedatuarekin bat. Gainera, behin-behineko bermea konfiskatuta geratuko da, SPKLren 106.1 artikuluaarekin bat, horrelako bermerik eskatu baldin bada.

23.- Kontratazio mahaia

1.- **30 apartatuan** izendaturiko kontratazio mahaia izango da eskaintzak baloratzeko organo tekniko eskumenduna, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluetan jasotakoari jarraikiz jardungo du.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

24.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea

24.1.- 1 zenbakiko gutunazalak irekitzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, kontratazio mahaiak ireki eta kalifikatu egingo du lizitatzailerek 1 zenbakiko gutunazalean garaiz eta behar moduan aurkeztutako dokumentazio administratiboa. Mahaiak akats edo huts konpongarririk ikusten badu dokumentu aurkeztuan, alde interesdunei emango die aditzera, eta gehienez 3 egun naturaleko epea emango die horiek zuzendu edo konpontzeko. Era berean, dagoeneko aurkeztuaz gain beste zenbait dokumentu osagarri edo argigarri aurkezteko eskatu ahal izango dio mahaiak lizitatzaileri, hori aurkezteko 5 egun naturaleko epea ematearekin batera.

2.- Interesdunei jakinarazpen elektronikoz emango zaie aditzera akatsa edo hutsa ikusi dela.

3.- Azkenean kontratazio mahaiak zehaztu egingo du zein lizitatzaille onartzen dituen lizitazioan eta zein uzten dituen kanpoan, horietarako arrazoiak ere emanda.

24.2.- 2 zenbakiko gutunazalak irekitzea eta aztertzea (bakarrik 2 zenbakiko artxibo elektronikorik badagoenean)

1.- Haien aurkezpena nahitaezkoa denean, "BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenarekin identifikatutako 2 zenbakiko gutunazalak ekitaldi publikoan irekiko dira, horien edukia ezaugarrien taulako **22. apartatuan** adierazitako irizpideen arabera ebaluatzearren.

2.- Ekitaldi hori hasteko, mahaiak pronuntziamendu espresua egingo du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitazioa onartuak eta lizitaziotik kanpo utziak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.

3.- Ezaugarrien taulako **20. apartatuan** adierazten diren ezaugarri formalak betetzen ez dituzten eskaintzak aurkezten dituzten enpresei eskaintza formalki zuzentzea eskatuko zaie, eduki materiala aldatzeke baina. Errekerimendu horri erantzun ezean, prozeduratik kanpo geratuko dira.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4.- Lizitazio prozeduratik kanpo geratuko dira eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzailleak eta 2 zenbakiko gutunazalean formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko dokumentazioa (3 zenbakiko gutunazala) sartzen dutenak.

24.3.- 3 zenbakiko gutunazalak irekitzea eta aztertzea

1.- 3 zenbakiko gutunazalak ekitaldi publikoan irekiko dira.

2.- 3 zenbakiko gutunazalak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren hasieran – 2 zenbakiko gutunazalik ez dagoenean–, mahaiak berariazko pronuntziamendua egingo du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitaziora onartuak eta lizitaziotik kanpo utziak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.

3.- Balio-judizio bitartez ebaluatzeko irizpiderik baden kasuan, ebaluazio horren emaitza ekitaldi honetan adieraziko da.

4.- Ondoren, kontratazio mahaiak ireki egingo ditu onartutako lizitatzailleek aurkeztutako 3 zenbakiko gutunazalak, “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA” izenekoak, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu.

5.- Gutunazal horietan jasotzen den dokumentazioa ezaugarrien taulako **22. apartatuan** adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko da.

6.- Edonola ere, irizpide horien ebaluazioa 2 zenbakiko gutunazalean jasotako dokumentazioaren balorazioaren ondutikoa izango da beti.

24.4.- Kontratazio mahaiaren aktak

Aurreko apartatuen arabera jardundako guztia erasota lagako da dagozkion aktetan, horiek prozeduraren emaitza eta izandako gorabeherak jasoko baitituzte.

25.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta eragindako lizitatzaillei jakinaraztea

1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena edo bazterketa kontratatzailearen profileen argitaratuko da. Argitaratze horretatik kanpo geratuko da indarrean dagoen legediarekin bat argitaratu ezin den informazioa. Dena den, kasuan-kasuan bidezko diren komunikazio edo jakinarazpenak zuzenduko zaizkie lizitatzaille ukituei.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.- Lizitatzailer bat kanpoan uzten bada, egintza hori ekitaldi publikoan bertan jakinaraziko zaio hari, enpresaren ordezkaria ekitaldian bertan dagoela-eta hori posible baldin bada, edo, bestela, jarraitu egingo dira urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako bestelako prozedurak.

3.- Bitarteko elektronikoko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan eskuragarri jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

26.- Esleipen irizpideak

1.- Kontratua esleitzeko irizpideak eta haztapena, bai oinarrizko eskaintzari eta bai aldaera edo hobekuntzei aplikatuko zaizkienak, lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako **22. apartatuan** ezarritakoak izango dira.

2.- Ez dira, inola ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko honelako proposamenak: formula aritmetikoak aplikatuta baloratzen ez diren esleipen irizpideei buruzko atal bakoitzerako, baldintza-agiri honetan ezarritako gehieneko luze-laburra gainditzen dutenak (azalak eta aurkibideak kontuan hartu gabe). Gehieneko luze-laburra gaindituz gero, edukia baloratuko da onartutako gehieneko orri kopurura arte.

3.- Enpresa Lizitatzaileraren batek ez badu aurkezten formula aritmetikoak aplikatuta baloratzen ez diren esleipen irizpideei buruzko dokumentaziorik, enpresa horren proposamena ez da baloratuko aztertzen ari den irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira, inola ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik.

4.- Era berean, ez dira baloratuko, dena delako irizpideari dagokionez, baldintza-agiri honen karatulan esleipen irizpideei lotutako testu idatzietako tamainari, marjinei, letra motari eta lerroarteari buruz (alde batera utzita grafikoak, diagramak...) jarritako parametroetako edozeini kasu egin gabe aurkeztutako proposamen guztiak. Halere, parametro horiei kasu ez egiteak ez du berekin ekarriko haiek esleipen prozesutik kanpo gelditzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

27.- Eskaintzak baloratzea

- 1.- Bere eginkizunetan aritzeko, mahaiak beharrezko iritzitako txosten guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusiarekin bat.
- 2.- Eskatzen diren ezaugarri teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak kanpoan geratuko dira.

3.- Ezaugarrien taulako **22. apartatuko** irizpideen kasuan, balio-judizioaren mendeko balorazioa dutenak haztapen osoaren % 50 baino gehiago direnean, prestakuntza egokia duen aditu batzorde batek egingo du 2 zenbakiko artxibo elektronikoaren aurretiazko ebaluazioa, edo organismo tekniko espezializatu batek, berariaz adieraziko baita ezaugarrien taulako apartatu aipatuan, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko. Ezaugarrien taulako apartatu horretan erasota lagako dira aditu batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak baloratu beharreko irizpide zehatzak, aipatuek balorazioa egiteko izango duten epearekin eta balorazio horrek izan beharko dituen gehienezko eta gutxienezko mugekin batera.

28.- Eskaintzak argitzea

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak eskaintza aurkeztuari buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkiote lizitatzailleari, edo eskaintzaren erredakzioko akats material agerikoak zuzentzeko esan, betiere tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuta eta eskaintzaren baldintzak aldatzeko inolako aukerarik emateke. Jardundako guztia dokumentu bidez erasota laga beharko da espedientean (SPKLren 95. artikulua).

29.- Balio baxuegiak dituzten eskaintzak

- 1.- Proposamen bati baxuegi irizten zaiola-eta betetzerik izango ez dela ulertzeko parametro objektiboak finkatu ahal izango ditu kontratazio organoak ezaugarrien taulako **22. apartatuan**.
- 2.- Anormaltasun presuntziopean dagokeen proposamen bat identifikatzen denean, kontratazio mahaiak –edo, bestela, kontratazio organoak– lizitatzailleari edo



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

lizitatzaillei eskatu beharko die eskaintza ez-ohiko edo anormaltzat definitzea eragin duten proposameneko parametroak arrazoi eta zehatz justifikatzeko eta xehakatzeko. SPKLren 149. artikuluko 4.etik 6.era bitarteko apartatueta aurreikusitako prozedura tramitatuko du, eta, emaitza ikusirik, proposamena onartzea edo atzera botatzea proposatuko dio kontratazio organoari.

30.- Prozedurako ondorengotza

Baldin eta, prozedura izapidetzen den bitartean eta kontratua formalizatu baino lehenago, enpresaren ondarea edo jardueraren adar bat bat egin, zatikatu edo eskualdatzeko eragiketa bat gertatzen bada, sozietate xurgatzailea, bat-egitetik sortu dena, zatiketaren onuradun izan dena edo enpresaren ondarea edo dena delako jarduera adarra eskuratu duena izango da prozeduran lehengo enpresa lizitatzaille edo hautagai haren ondorengoa, betiere horretarako gaitasuna badu, kontratatzeko debekurik ez badu eta bere kaudimen eta sailkapena egiaztatzen badu, esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateari begira baldintza administratibo partikularren agiri honetan eskatzen diren baldintzak beteta.

31.- Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia eta esleipen prozeduran Administrazioak atzera egitea

1.- Kontratua ez esleitzeko edo egiteko eta SPKLren 152. artikuluko baldintzetan esleipen prozeduran atzera egiteko erabakia bakar-bakarrik formalizazioaren aurretik hartu ahal izango du kontratazio organoak. Erabakia lizitatzaillei jakinarazi beharko die, eta baita Europako Batzordeari ere kontratua Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean iragarri baldin bada.

2.- Kasu bietan, hautagai egokiei edo lizitatzaillei ordaina eman beharko zaie, baldintza-agiri honetako ezaugarrien taulako **27. apartatuak** kasuan-kasuan zehazten duen kopurukoa.

32.- Esleipena



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

32.1.- Eskaintzen sailkapena eta esleitzeko proposamena

1.- Behin eskaintzak baloratu ondoren, aktarekin batera dagokion balorazioa eta kontratua esleitzeko proposamena bidaliko dizkio kontratazio mahaiak kontratazio organoari. Proposamenean, ezaugarrien taulako **20. apartatuan** jasotako irizpideen aplikazioz bakoitzari emandako puntuazioaren arabera beheranzko hurrenkeraz antolatuta agertuko dira eskaintzak, kalitate-prezio erlazio onena duena identifikatuta.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du eskubidetik sortzen proposatutako lizitatzaillearen alde, eta, beraz, hark ez du eskubiderik eskuratuko Administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatzen ez den arte.

Kontuan hartutako irizpide bakarra prezioa denean, ulertuko da eskaintzarik onena preziorik txikiena jasotzen duena dela.

2.- Ezaugarrien taulako **22 apartatuan** aurreikusi ez denean bi lizitatzaille edo gehiagoren arteko guztirako puntuazioko berdinketak desegiteko irizpiderik, edo irizpide horiek aurreikusi baina aplikatu ondoren berdinketak segituz gero, SPKLren 147.2 artikuluan aurreikusten diren irizpide sozialak dagokien hurrenkerari jarraikiz aplikatuta desegingo da berdinketa.

32.2.- Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatzailleak aurretiatzko baldintzak betetzeari buruzko justifikazio dokumentazioa aurkeztea

1.- Kontratazio organoak mahaiaren proposamena onartzen duenean, kasuan kasuko zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileri eskatuko diote kontratua esleitzeko beharrezkotzat jasotako dokumentazioa aurkezteko. Horretarako 10 egun balioduneko epea izango du lizitatzailleak, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Dokumentazioa honakoa izango da:

- 1.- **Jarduteko gaitasuna eta jarduera eremua egiaztatzen duten dokumentuak.** Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa- edo aldaketa-eskrituraren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, baldin eta aplikagarri zaion merkataritza legeriaren arabera inskripzio betebehar hori galdagarria bada. Erregistroan inskribatuta egote hori



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

galdagarria ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, estutuen edo fundazio aktaren bitartez egiaztatuko da, horretan erasota egongo baitira pertsona juridikoaren jarduera erregulatzen duten arauak. Horiek, hala dagokionean, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jardueraren esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz. Hori guztia aurkezten den dokumentazioan egiaztatu beharko da.

Enpresa pertsona bakarrekoa denean, nortasun agiria edo haren ordezkariaren dokumenturen bat aurkeztu behar da.

- 2.- **Hala dagokionean, ordezkariak egiaztatzen duten agiriak.** Beste baten izenean aurkezten diren edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonen nortasun agiriaren kopia aurkeztuko dute, horretarako askietsiriko ahalordearekin batera.

Ordezkaririk horrek NANik ez badu, erregelamenduz hura ordezkariaren dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legitimatua edo dagokion erakunde administratiboak konpultsatua.

Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon behar du. Alabaina, egintza konkretu baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, betiere Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ordezkatze ahal egiaztatze dokumentaziorik aurkeztu beharrik ez da izango, ordezkariak hori Gipuzkoako Foru Aldundian inskribatuta dagoenean, tramite honetarako behar beste ahalez, bai hark duen legezko ordezkariaren erroldan bai borondatezko ordezkariaren errolda korporatiboan.

- 3.- **Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko edo profesionala.** Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzea SPKLren 87. eta 89. artikuluetan aurreikusi eta lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako **18. apartatuan** zehaztu bitartekoak erabiliz.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, horien kaudimena zehaztera begira metatu egingo dira elkartekide bakoitzaren ezaugarriak (HAKLEOren 24.1 artikulua).

Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetak nazionalak diren lizitatzailleek, Espainian sailkatu gabe daudenean, sailkapenaren ordeztu beharko dute beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere SPKLren 87. eta 88. artikuluetan jasotakoaren arabera eta kontratazio organoak ezaugarrien taulako **18. apartatuan** ezarritako bitartekoak erabilita.

Ondorio horietarako, Europar Batasuneko estatu kideek kontratatuzeko baimena duten enpresariei buruz ezartzen dituzten zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek luzatutako inskripzio ziurtagiriak aurkeztuz gero, ziurtagiria luzatzen duen estatu kide batean establezimendua duten enpresariei buruzkoak direnean, uste izango da enpresak gaitasuna duela haietan jasotako hautapen kualitatiborako baldintzei dagokienez.

Era berean, berdin uste izango da, haietan ziurtatutako alderdiei dagokienez, ziurtapen organismo eskudunek egindako ziurtagiriak aurkeztuz gero, baldin eta horiek betetzen badituzte lizitatzailleak establezimendua duen estatu kideko legeriaren arabera luzatutako ziurtapen arau europarrak.

Aurreko apartatuan aipatutako dokumentuetan enpresaria zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria ematea eta sailkapena lortzea ahalbidetu duten erreferentziak adierazi beharko dira.

- 4.- **Kontratuaren xede den prestazioa emateko enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzea.** Kontratatuzeko gaitasunerako baldintzatuz legez galdagarria baldin bada, kontratu honen xede den prestazioa emateko behar den enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.
- 5.- **Kaudimena kanpo bitartekoak erabiliz egiaztatuzeko** (SPKLren 75. artikulua), frogatu egin beharko da egiaz badirela kontratua betetzeko pertsona eta material aldetiko bitartekoak, beste entitate horiek idatziz hartutako konpromisoa aurkeztu beharko baita.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Lizitatuzaileak, kontratua betetzeko, bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen bitarteko berak erabiliko ditu. Aurreikusi ezindako arrazoiak sortu direla eta horiek ordezkatu behar izanez gero, pareko kaudimena egiazta dezaketen beste bitarteko batzuk baliatuko ditu, betiere Administrazioak baimenduta.

- 6.- **Lizitatuzaileak azpikontratatzeko asmoa duen kontratu zatiari buruzko adierazpena.** Ezaugarrien taulako **20. apartatuak** eskatzen duenean, lizitatuzaileek adierazi egin beharko dute kontratuaren zer zati azpikontratatzea aurreikusi duten, azpikontratazioaren diru zenbatekoa ehuneko gisa adierazita, lan hori egingo duten azpikontratisten izena edo enpresa profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definituta) zehaztuta (SPKLren 215. artikulua).
- 7.- **Ingurumen kudeaketako arauak eta kalitate bermearen ingurukoak** betetzea. Ezaugarrien taulako **18.4. apartatuan** horrela aurreikusten bada, han adierazten diren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu lizitatuzaileak.
- 8.- **Zerga betekizunetan zein Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egoteari buruzko ziurtagiriak edo kontratuaren organo kudeatzaileari emandako baimena,** hain zuzen ere, azken honek jaso ditzan Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena duen organoak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak, zerga betekizunak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzkoak.
- 9.- 250 langiletik gorako enpresek **berdintasun plan bat badutela justifikatzeko dokumentazioa** aurkeztu beharko dute, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako denak, 45. artikuluan xedatzen duenari jarraikiz.
- 10.- **Langile finko desgaituen kopuruari buruzko adierazpena.** 50 langile edo gehiagoko enpresek dokumentazioa aurkeztu beharko dute, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostu kuota edo, bestela, osagarri gisa edo subsidiarioki, horren beharrean har daitezkeen neurriak betetzen dituztela egiaztatzeko, hain zuzen ere 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, zein horren garapenerako araudiak, aurreikusten dutenarekin bat. Era berean, agindu hori jasota dago urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren, erosketa



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak foru sektore publikoko kontratazioan txertatzekoaren 9. artikuluan.

11.- **Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren mendeko jarduerak zertzen direnean:** urteko ekitaldiko alta, edo azken erreziboa, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera eta, hala dagokionean, salbuetsita egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

12.- **Behin betiko bermea eratztea**, kasuan-kasuan dagokiona. Honela egin ahal izango da gordailua:

- Banku-kontuaren nazioarteko zenbakia duen KUTXA ES48 2095 5043 94 1063684178 kontuan, diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere sartu beharko da.
- Kontratazio organoaren aurrean, idatzoharra egindako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean (ikusirik **VII. eranskinean**).

2.- Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailera salbuetsita geldituko da, hartan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako zirkunstantzietan buruzko frogagiriak aurkeztetik.

Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKL neurri batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Ziurtagiriekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko den ziurtagirian adierazitako zirkunstantziak ez direla aldatu.

Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.

Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu base nazional batean agertzen denean, enpresaren espediente birtual moduan, dokumentuak elektronikoki biltegitratzeko sistema baten moduan edo aurrekalifikazio



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

sistema baten moduan, eta organo horiek haietan doan sartu daitezkeenean, enpresak ez du aurkeztu beharko toki horietan inskribatutako datuak egiaztatzen dituzten dokumentuak edo bestelako froga dokumentala. Izan ere, lizitatzailleak bakarrik adierazi beharko du, espresuki, dena delako erregistroan edo datu basean inskribatuta dagoela.

3.- Aurreko bi apartatuetako dokumentazio guztia eta ezarritako epearen barnean behar bezala aurkezten ez bada, ulertuko da lizitatzailleak atzera egin duela bere eskaintzan. Horrenbestez, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan; diru kopuru hori jasotzeko, behin-behineko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratua den kasuetan.

Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, eskaintzen sailkapenean hurrengo den lizitatzaileri dokumentazio berbera eskatuko zaio (SPKLren 150.2 artikulua).

4.- Klausula honetan adierazia emandako epearen barnean betetzen ez duen lizitatzaileri, dolo, erru edo zabarkeriaz jardun baldin badu, kontratatzeke galarazpena ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2 a) artikuluan aurreikusiararen arabera.

32.3.- Behin betiko bermea

1.- SPKLren 145. artikulua arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzailleak behin betiko berme bat eratu beharko du, eta kontratazio organoaren eskura jarri. Bermea lizitatzailleak eskaintako amaierako prezioaren 100eko 5 izango da, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan utzita, baldin eta prezio unitarioka egiten ez bada kontratazioa, orduan **21 apartatuan** zehaztuko baita. Berme horren eraketa 10 egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, SPKLren 150.2 artikuluan aipatutako errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera.

2.- Ezaugarrien taulako **21. apartatuan** jasotzen den behin betiko bermea SPKLren 108. artikuluan eta HAKLEOren 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten den moduetako edozeinetan eratu ahal izango da. Eskakizun hori esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, Administrazioak ez du haren aldeko esleipenik egingo.

3.- Ezaugarrien taulako apartatu aipatuan horrela aurreikusten bada, prezio atxikipen bitartez eratu ahal izango da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Prezioko atxikipen bitartez eratuz gero, behin betiko bermea kontratistari jasanaraziko zaio, aurrez berriaz emandako baimenarekin, eta horren kopurua lehen fakturatik eta hurrengoetatik kentzen joango zaio, harik eta kopurua osatzen den arte.

4.- Kontratistari eska dakizkiokeen zehapenak edo kalte-ordainak bermearen bitartez gauzaten badira, kontratistak berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa dagokion kopuruz handitu, haiek gauzaten direnetik 15 egun naturaleko epean; horrela ez egitea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

5.- Kontratuan izandako aldaketaren bat dela eta kontratuaren prezioa ere aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia lizitatzailari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasi eta 15 egun naturaleko epean, hain zuzen prezio berriarekiko proportzioa mantendu dezan.

6.- Nolanahi ere, behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluan aipatutako kontzeptuez erantzuteko erabiliko da. Kontzeptu horien barruan sartuta dago kontratistak ez betetzea kontratuari lotutako prestazioak oker betetzearen ondorioz hirugarrengeoi eraginkako kalte-galerak ordaintzeko obligazioa, SPKLren 196. artikuluan jasota dagoena.

7.- Behin-behineko bermea eratzen denean, esleipendunak aukeran izango du behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betiko bermeari aplikatzea edo azken hori berriro eratzea.

8.- Berme osagarria SPKLren 107.2 artikuluan jasotakoaren arabera ezarriko da, eta, hala badagokio, ezaugarrien taulako 21. apartatuan xedatutakoari jarraituko zaio.

32.4.- Esleipena

1.- Kontratazio organoak kontratua esleitu beharko du **32.2 klausulak** aipatzen duen dokumentazioa jaso eta hurrengo 5 egun baliodunen barruan.

Ezingo da utzi esleitu gabe lizitazio bat, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

2.- Esleipenaren ebazpena arrazoitua izan beharko da eta enpresa hautagai eta lizitatzailaiei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profileen argitaratuta egon beharko da 15 eguneko epean.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 3.- Aurreko apartatuak aipatzen dituen jakinarazpenak eta publizitateak beharrezko informazioa izango dute, eta bereziki SPKLren 151.2 artikulua galdatua, hain zuzen esleipen prozeduran interesa duten pertsonak behar beste oinarritutako errekursoak jarri ahal izan ditzaten esleipen erabakiaren kontra.
- 4.- Esleipenaren motibazioan 153.3 artikuluan jasotako isilpekotasun salbuespena aplikatu beharko da.
- 5.- Edonola ere, kontratua zer epetan formalizatu behar den adieraziko da bai jakinarazpenean bai kontratatzailearen profilean, SPKLren 153. artikulua xedatzen duenarekin bat.
- 6.- Jakinarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko agerraldi bitartez egingo da.

33.- Kontratua formalizatzea

- 1.- Kontratua administrazio dokumentuan formalizatu beharko da. Dokumentu hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie estu-estu, eta behar besteko titulua izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango ditu eskritura publikoak egiteak sortzen dituen gastuak. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezingo da inola ere sartu esleipen irizpideak aldatzea eragingo duen klausularik.
- 2.- Kontratua formalizazioaz burutzen da eta, horrenbestez, ezin izango da inolaz ere kontratua betetzen hasi, aurrez formalizatzeke.
- 3.- Kontratua sinatu aurretik, esleipenduna ordezkatzeko duen pertsonak honakoak aurkeztu beharko dizkio kontratazio organoari:
 - a) Bere identitatea eta ordezkaritza egiaztatzen dituzten dokumentuak.
 - b) Esleipenduna aldi baterako enpresa elkartea baldin bada, elkartearen eraketaren eskritura publikoa, elkarteari eman zaion IFK eta ahal nahikoz hornitutako ordezkaria izango den pertsonaren izendapena.
 - c) Baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak edo estatuko Lizitatzzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

emandako ziurtagiria aurkeztu bada, esleipendunak berretsi egin beharko du ziurtagiria ematea eragin zuten zertzeladak indarrean daudela.

4.- Kontratua kontratazio arloko errekurtsio berezia jartzeko modukoa bada, ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita 15 egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Kontratazio organoak, aurreko lerrokadan aurreikusitako epea igarotakoan eta, betiere, epe horretan, kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko lukeen errekurtsorik jarri ez bada, esleipendunari eskatuko dio formaliza dezala kontratua, gehienez ere 5 egun naturaleko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren ondorengotik kontaktzen hasita. Berdin jokatuko du, errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

5.- Bestelako kasuetan, kontratuaren formalizaziorako gehienezko epea 15 egun baliodunekoa izango da, esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

6.- Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta kontratua ez bada formalizatu adierazitako epearen barnean, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZ kanpo, zehapen kontzeptuan; kopuru hori jasotzeko, behin betiko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratua den kasuetan. Horretaz gain, kontratatzeke galarazpena ere ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2.b) artikuluan aurreikusiarekin bat.

7.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egozteko modukoak badira, berandutzek eragindako kalteen ordaina emango zaio kontratistari.

8.- Kontratuaren formalizazioari publizitatea emango zaio, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

III. KAPITULUA - KONTRATUA BETETZEA

34.- Kontratuaren arduraduna

1.- Kontratazio organoak, kontratua esleitzeko ebazpenean, kontratuaren pertsona arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua betetzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearen.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Era berean, kontratuaren arduradun izango den pertsonak laguntzaileak eduki ahal izango ditu, titulu profesional edo jakintza espezifikoen arabera. Laguntzaile horiek kontratua esleitzeko ebazpenean bertan identifikatuko dira halaber.

2.- Kontratuaren arduraduna izango da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

3.- Bere eginkizunak garatu ahal izateko, arduradunak eta laguntzaileak libre sartu ahal izango dira kontratuaren xede den prestazioa garatzen den lekuetara, eta egoki irizitako ikuskapen guztiak egin ahal izango dituzte, kontratistak koordinatzaile izendatzen duen pertsonak lagunduta, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak kontratuaren xede diren prestazioak garatzeko erabakigarriak badira. Kasu horietan, kontratuaren arduradunak lekuetara sartzeko beharra justifikatu beharko du, espresuki eta espediente administratiboan zehaztuta; espediente hori kontratazio organoak berretsi beharko du aurretik.

Era berean, egoki deritzoten informazio eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta kontratuaren xedea behar bezala betetzeko beharrezko bilerak sustatu eta deitu, betetze horretako edozein gorabehera bideratu ahal izatearren.

Kontratuaren arduradunak ezarriko ditu jarraibideak.

4.- Zehazki, honako eginkizun hauek dagozkie:

I.-Kontratua betetzeko lanak kontratuan bertan jasotako baldintzetan eta aurreikusitako epean gauzatzen ari direla egiaztatzea. Bereziki, beharrezko ekintzak zertzea, jarduera horrek kontratuaren kalitate eskakizunak eta klausula sozialak, ingurumenekoak eta berritzaileak betetzen ote dituen egiaztatzearren.

II.-Kontratazio organoari aditzera ematea edozein motatako ez-betetzeak eta, hala dagokionean, zigorrak ezartzeko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko, kontratua behar bezala gauzatzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko edo Administrazioari enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragiten dituen kalteengatik ordaina emateko prozedura abia dadin proposatzea.

III.Kontratuan beharrezko den aldaketa oro gomendatzea, esaterako zehaztaperen, jarraibide edo jardun eraginkorragoak eman ditzaketen beste baldintza batzuen kasuan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IV. Kontratuari atxikitako pertsona zein material aldetiko aldaketak baimentzea, betiere kontratazio organoak emandako jarraibideen ildotik, kontratuaren aldaketarik ez dakarten kasuetan.

V. Luzapenen behar eta egokitasunari buruzko txostena ematea eta horiek motibatzea.

VI. Enpresa kontratistak azpikontratista edo hornitzaileekiko dituen ordainketa obligazioak betetzen dituela egiaztatzea.

5.- Kontratua bete bitartean aldatzen badira kontratuaren arduraduna edo laguntzaileak, enpresa kontratistari horren berri emango zaio, idatziz, kontratatzailearen profilean argitaratzearekin batera.

35.- Kontratistaren ondorengotza

1.- Enpresak edo enpresen jarduera-adarrak batzen, zatitzen, jartzen edo eskualdatzen direnean, kontratuak jarraitu egingo du kontratua esleitzen zaion entitatearekin, hori subrogatu egingo baita kontratuari darizkion eskubide eta obligazioetan, betiere SPKLren 98. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen badira. Kontratista enpresen aldi baterako elkartzea baldin bada SPKLaren 69.8 art. jarraituko da.

2.- Kontratistaren betebeharra da Administrazioari era frogagarrian jakinaraztea nortasun juridikoari eragiten dion aldaketa oro. Horrelakoetan eten egingo da kasuan kasuko fakturak ordaintzeko legez aurreikusten diren epeen konputua, harik eta aldaketak egiaztatzen diren arte.

3. Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen entitateak beharrezkoak diren kaudimen eta gaitasun baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta esleipendunaren erruz suntsiarazi dela joko da ondorio guztietarako.

36.- Kontratua besteri lagatzea

1.- Kontratuari darizkion eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa esleipendunak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

2.- Kontratatik bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izan diezazkion, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Kontratazio organoak lagapena egiteko baimena berariaz eta aurretik ematea.
- b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 bete izatea.
- c) Enpresa lagapen-hartzaileak kontratuak egiteko gaitasuna eta kontratuaren betetze fasearen arabera galda daitekeen kaudimena izatea. Gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta horri ez dio eragin behar kontratatze inolako debekuk.
- d) Enpresa esleipendunaren eta enpresa lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publiko bitartez formalizatzea.

3.- Lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko da.

37.- Betetze baldintzak eta betebeharrak

37.1.- Baldintza orokorrak

1.- Kontratua betetzeko zehatz-mehatz segituko dira baldintza-agiri honetan eta ezaugarri teknikoaren baldintza-agirian jasotako klausulak, eta interpretatzeko unean jarraitu egin beharko dira kontratuaren arduradunak kontratatari emandako jarraibideak.

2.- Esleipendunaren erantzukizuna izango dira obraren xede diren ondasunen kalitatea, bai eta kontratua betetzerakoan Administrazioarentzat edo hirugarren pertsonentzat huts, akats, metodo desegoki edo ondorio okerretatik sortzen diren ondorioak ere.

3.- Pertsona edo enpresa kontratatik lantalde eta langile egokiekin egin beharko du obra, eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun. Bere eskaintzan aipatutako bitarteko teknikoak ere jarriko ditu eta, oro har, lanak ondo egiteko behar diren guztiak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

4.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek borondatez onartzen dute lizitatze, esleitze eta betetze prozesuetatik eratorritako datu guztiei gardentasuna ematea.

37.2.- Kontratuaren betetzeko baldintza bereziak

Ezaugarrien taulako **23. apartatuan** aurreikusiez gain, betetze uneko obligazio bereziak dira honakoak:

37.2.1.- Lan eta gizarte arloko baldintza eta ingurumenaren babesaren arlokoak

1.- Kontratatutako lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun nahiz osasun eta ingurumenaren babes arloetako lege, araudi eta hitzarmen xedapen guztiak bete beharko ditu, baita baldintza agiri hauetan xedatutakoak ere.

2.- Kontratatutako kontratuaren gauzatuko duten langileei aplikatuko dizkien lan baldintzak izango dira enpresa kontratistaren jardura kokatuta dagoen sektorearen maila txikienerako esparruko azken hitzarmen kolektiboan ezarritakoak (GIPUZKOAKO ERAIKUNTZAREN HITZARMENA); betiere, eragotzi gabe indarrean egon daitezkeen eta aipatutako hitzarmena hobetzen duten enpresaren beste hitzarmen edo itun batzuek ezarritakoak.

3.- Kontratuaren indarraldi osoan zehar, enpresa kontratatutako kontratutako langileen lan baldintzak mantendu beharko ditu hitzarmen kolektibo aplikagarria kontuan hartuta, eta ezingo ditu lan baldintza horiek okerrago; nahiz eta aurrerago hitzarmen horren indarraldia amai daitekeen, lan hitzarmenaren indarraldiaren amaierari buruz legeetan edo hitzarmenetan aurreikusitakoa betez. Obligazio hori bete dela ulertuko da hitzarmenak indarra galdu aurreko –halakorik gertatuz gero– berehalako unean hitzartuta zegoen orduko soldata mantentzen bada. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inola ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan. Kontratatutako egoera hori egiaztatze behar den informazio edo dokumentazioa aurkeztu beharko dio kontratazio organoari.

4.- Esleipendunak zehaztu beharko du kontratutako xedea den jardura egiten duten langileei zer hitzarmen kolektibo aplikatuko dien. Horretarako, kontratuaren esleitu



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ondoren, kontratu horri atxikitako langileei aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz aholku eta informazio gehien aurkeztu beharko du.

5.- Enpresa esleipendunak kontratuko xedea den jarduera egiten duten langileei aplikatuko beharreko hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa jasoko da esleipen ebazpenean eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

6.- Kontratuari atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa, baldin eta esleipenaren unean aplikagarria den hitzarmen kolektiboan xedatutakoei eragiten badie, aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaizkio kontratazio organoari. Komunikazio horretan negoziatioari buruzko justifikazio dokumentazioa agertu beharko da, bai eta lan baldintza berrien edukia, aldaketa horrek kontratuaren kostuen egiturari izango duen berehalako eta etorkizuneko eragina ere.

7.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontrataziorik. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontrataziorik egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak gizarte segurantzaren izena eta alta emanda daudela, eta horren berri emango dio kontratazio organoari.

8.- Baldin eta, enpresa kontrataziorik klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontrataziorik jasalaraziko dizkio. Horretarako, administratio kontratatzaileak beharrezko jarduketara administratio edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

37.2.2.- Bete beharreko hizkuntza baldintzak

1.- Euskadiko Autonomia Estatutuko 6. artikuluan xedatutako bi hizkuntza ofizialen araubidearen mende dago kontratu hau, hain zuzen ere 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoak, eta Ibarako Udalaren eta bere organismo autonomoen esparruko euskararen erabilera normalizatzeko planak xedatutako moduan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.- Enpresa esleipendunak administrazio kontratatzailean aplikatzen diren hizkuntza arauak beteko ditu, kontratuaren zeregin guztietan. Enpresaren idatzizko nahiz ahozko harremanetan administrazioarekin, honen lan hizkuntzara egokituko dira.

Errotulu, ohar, seinaleztapen eta gainerako komunikazioak izaera orokorra dutenak piktograma bidez emango dira, euskarazko azalpenezko mezu batekin.

Piktograma bidez ezin bada, euskaraz egingo dira mezu ezagunak eta ulergarriak badira. Bi aurreko kasuak ezinezko badira, elebitan egingo da euskarari lehentasuna emanez, administrazioarekin adostu ondoren.

Administrazioarekin harremanetan euskara erabiliko da oro har. Kontratua exekutatzeko ondorioetarako ulertzen da, "euskara normaltasunez" erabiltzea:

Ahozko komunikazioetan euskaraz dakien langilea administraziori zuzentzen zaionean euskaraz egingo du lehenik.

Administrazioa euskaraz zuzentze bazaio langileari eta honek ez badu ezagutza nahikorik, exekuzioaz arduratzen den enpresak bitartekoak edo hizkuntza gaitasuna duen langilea jarriko du euskaraz izan dadin administrazioarekiko harremana, kontratu honetatik eratorritakoari dagokionez.

37.2.3.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun esparruko baldintzak

1.- Enpresa esleipendunak lengoia ez-sexista erabili beharko du kontratu hau exekutatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

37.2.4.- Baldintzak azpikontratazioan

1.- Azpikontratuak egin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Esleipendunak aldez aurretik eta idatziz jakinarazi behar dio kontratazio organoari azpikontratuak egiteko asmoa, prestazioaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratatik nortzuk diren zehaztuz. Horrez gain, azpikontratisten izena, harremanetarako datuak eta lege ordezkariak zeintzuk diren adierazi beharko du, eta, era berean, azpikontratatik kontratua gauzatzeko gaitasuna dutela behar bezala justifikatu beharko du, baita Administrazioarekin kontratatzeke debeku egoeran ez daudela ere.

Azpikontratatik Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 71. artikuluan aurreikusten diren kontratatzeke debeku edo gaitasun eza ez dituela egiaztatu ahal izateko, kontratatik nahitaez aurkeztu beharko du azpikontratatik sinatutako erantzukizuneko aitoren bat, gauzak horrela direla adierazten duena.

Azpikontratuak ez badatoz bat eskaintzan zehaztutakoarekin, bai eskaintzan izenez adierazitako enpresariekin egin ordez beste batzuekin egiten direlako, edo eskaintzan adierazitako profil profesionalaren arabekoak ez direlako, ezin izango dira egin, jakinarazpena bidali eta gaitasunari nahiz kaudimenari buruzko egiaztagiria aurkezten direnetik 20 egun natural igaro arte, non eta azpikontratu horiek ez diren aldez aurretik eta berariaz baimendu, eta Administrazioak ez badu, epe horren barne, horien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin. Araubide hori aplikatuko da, era berean, eskaintzan, lanbide profila deskribatuz identifikatu badira azpikontratatik.

- 20 egun naturaleko epea igaro gabe ere egin ahal izango dira azpikontratuak, betiere kontratatikaren erantzukizunaren pean, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak ezarri behar direlako, eta behar bezala justifikatzen eta jakinarazten bada.

-Isilpeko kontratuetan edo izaera erresebatukoetan, edo segurtasun neurri berezietz babestuta gauzatu beharrekotan, lege nahiz araudien arabera, edo estatuaren segurtasunaren funtsezko interesak babestu beharrek hala eskatzen duenean, azpikontratazioa egiteko, kontratazio organoaren baimen espresua beharko da beti.

2.- Ezaugarrien taulako **20. apartatuan** aipatzen diren zeregin kritikoak ezingo dira azpikontratatu, kontratista nagusiak zuzenean egin beharko ditu.

3.- Kontratista nagusiaren mende bakarrik egongo dira azpikontratatik, eta beraz, Administrazioaren aurrean kontratista nagusia izango da kontratuaren erantzule bakarra, hitzez hitz bete beharko baititu baldintza administratibo berezien agiria eta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

kontratuan xedatutakoa, gizarte eta lan arloko betebeharrak nahiz ingurumen arlokoak barne.

Enpresa kontratista nagusiaren erantzukizun eskusiboa ez da ezertan aldatuko, nahiz eta aurreko 1. apartatuaren a) eta b) letretan adierazitako komunikazioen indarrez egin diren azpikontratuak berri izan Administrazioak – edo c) letran ezarritako kasuan emandako baimena izanda ere.

4.- Kontratatistak ezingo du inolaz ere kontratu zati bat gauzatzeko hitzarmenik egin antolamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsonekin.

5.- Enpresa kontratistak azpikontratazioari buruzko informazioa eman beharko dio langileen ordezkariari, lan legerian xedatutakoaren arabera.

6.- Enpresa edo entitate esleipendunak azpikontratua islatuko den dokumentua aurkeztu beharko du kontratazio organoaren aurrean. Bertan, enpresa edo entitate azpikontratatisten betebeharrak zehaztu beharko dira, kontratu honetan aurreikusitako klausulen inguruan, eta haiek ez betetzeak sortzen dituen ondorioak ere zehaztu beharko dira.

7.- Azpikontratatistek ordaintzeari dagokionean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 216. artikulua bete beharko da, baita abenduaren 29ko 3/2004 Legea, merkataritza eragiketarako berankortasunaren arauko neurriak ezartzen dituenak, aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa ere.

8.- Kontratatistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratatistek edo hornitzaileek egin beharreko ordaintzak zehatz-mehatz bete dituen egiaztatu ahal izango du Administrazioak.

Horretarako, Administrazioak hala eskatuz gero, kontratuan parte hartzen duten azpikontratatisten edo hornitzaileen zerrenda bidali beharko dio kontratatistak, xehetasun guztiekin, haien parte hartzea gauzatzen denean; bertan, bakoitzaren azpikontratazio edo hornikuntza baldintzak ere zehaztu beharko dira, ordaintzaren epearekin zerikusizuzena dutenean.

Halaber, Administrazioari frogagiri bat aurkeztuko dio, horrek hala eskatuz gero, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 216. artikuluan eta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

abenduaren 29ko 3/2004 Legean xedatutako ordainketa epeak bete direla adierazten duena, betiere behin prestazioa amaituta.

37.2.5.- Laneko segurtasun eta osasun esparruko baldintzak

1.- Laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioko esparruan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa kontratistak, baita hitzarmen kolektibo aplikagarritik eratorritakoak ere.

2.- Enpresa kontratistak nahitaezko edo beharrezko laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu, kontratu honen xedeari lotuta dauden langileen osotasunarentzat edo osasunarentzat sor daitezkeen arriskuei aurrea hartzeko.

3.- Obra kontratuaren xedearen izaera dela eta, kontratistaren langileek administrazio kontratatzailearen zentroetan prestazioren bat egiteko esku hartu behar badute (edo, azpikontratastarenek, halakorik badago), eta lantoki horietan Administrazioaren langile propioek ere lan egiten badute, esku-hartzeari ekin baino lehen, horretan lan egingo duten enpresa eta langile autonomo guztiek lankidetzan jardun beharko dute, eta garatuko dituzten jarduerak sor ditzaketen berariazko arriskuei buruzko informazioaren elkartrukea egin beharko dute, hain zuzen arrisku horiek jardueran parte hartzen duten beste enpresetako langileengan eragina izan badezakete. Enpresa bakoitzak bere langileei jakinaraziko dizkie jarduera aldiberekotasunagatik sortzen diren arriskuak, eta beharrezko koordinazio bitartekoak jarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da lan arriskuen ebaluazioa eta dagozkion prebentzio jardueren plangintza egiteko orduan.

Kasu horietan, jarduerari ekin baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, Jarduera enpresariaren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez:

- a) Kudeaketa prebentiboko dokumentua, baita hartu beharreko prebentzio neurriak ere.
- b) Egin beharreko lanen prebentzio jardueren plangintza.
- c) Jaso izanaren agiria, kontratistak sinatuta, baita azpikontratistak sinatuta ere, halakorik badago, egiaztatzeko administrazio kontratatzailearen eskutik lantokiko eta bertako instalazioetako berezko arriskuei buruzko dokumentazioa jaso dela,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

baita arrisku horiei aurrea hartzeko prebentzio neurriei eta jarraibideei buruzkoa eta larrialdi egoeretan aplikatu beharreko neurriei buruzkoa ere.

- d) Aplikatutako prebentzio antolakuntzaren modalitatea. Hirugarren prebentzio zerbitzu bat aplikatzen bada, Prebentzio Zerbitzuarekin egindako kontratuaren kopia bat aurkeztu beharko da, hiru espezialitate hauekin: Segurtasuna, Higienea, Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatua, eta, gainera, Osasunaren Zaintza; eta prebentzio zerbitzu hori indarrean dagoela egiaztatzen duen ordainagiri edo ziurtagiria.
- e) Kontratua eta horren xedea betetzeko makineria exekutatuko dituzten langileen zerrenda.
- f) Kontratuaren exekuziorako atxikitako langileek kontratuko lanak egiteko mediku-egokitasunari buruzko egiaztagiria.
- g) Kontratua exekutatuko duten langileek prebentzio esparruan jaso duten prestakuntzaren eta informazioaren frogagiria; horren barne egon beharko dira lantokiko eta bertako instalazioetako berezko arriskuen inguruan jasotako informazioa, arrisku horiei aurrea hartzeko prebentzio neurriak eta jarraibideak eta larrialdi kasuetan aplikatu beharrekoak.
- h) Kasu bakoitzean beharrezkoak diren babes ekipamendu individualen entregaren frogagiria.
- i) Enpresak bere makineria edo lanerako ekipamenduak erabiltzen baditu, adostasun deklarazioa, CE markak edo 1997ko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretura, langileek lan tresneria erabiltzerakoan segurtasun eta osasun arloetan errespetatu beharreko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen era egokitzeko dokumentazioa eta horiek erabiltzeko eskuliburua. Halaber, tresna horiek erabili behar dituzten langileek horretarako berariazko prestakuntza jaso duela eta horiek erabiltzeko baimenduta daudela adierazten duen ziurtagiria.
- j) Produktu kimikoen segurtasun fitxak, enpresa kontratistak edo azpikontratistak produktu kimikorik erabili behar badu.
- k) Segurtasun eta osasuneko arauak betetzen direla bermatuko duen pertsonaren izena; baita administrazio kontratatzailearen langileak koordinatzeko bitartekoak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ere. Horrez gain, dagozkion prebentzio baliabideak eskuragarri jartzea, baldin eta horrelakorik beharrezkoa bada.

Enpresa kontratistak beste enpresa bat azpikontratatzeko badu kontratuaren xedearen atal bat egiteko, enpresa kontratistak aurreko apartatua zehaztutako egiaztapenak eskatu beharko dizkio azpikontratatari (autonomoei), hain zuzen ere enpresa kontratistak administrazio kontratatzailearen aurrean aurkezteko.

Bereziki bermatu beharko da enpresa azpikontratatari laneko segurtasun eta osasun esparruko betebeharrak guztiak betetzen dituela, eta zehazki, prebentzio jardueren koordinazioari eta beharrezko prebentzio baliabideak eskuragarri jartzeari buruz, araudiak xedatutakoa betetzen dela.

Enpresa kontratistak bermatu beharko du jarduera gauzatzeko eta lanen zuzendaritza zuzenean egiteko azpiegitura eta baliabide nahikoa dituela enpresa azpikontratatuak.

Entitate kontratatzaileak zainduko du kontratistek eta azpikontratatari lanen arriskuei aurrea hartzeko araudia betetzen dutela. Horretarako beharrezkoa den edozein neurri hartu ahal izango du.

4.- Obra kontratuaren xedearen izaera dela eta, kontratistaren (edo, hala badagokio, azpikontratatariaren) langileek entitate kontratatzailearen lantokiren batean prestazioa eman behar badute eta bertan kontratatzailearen langileek zerbitzurik ematen ez badute, ezingo da kontratuaren xede den jarduera abian jarri, baldin eta aldez aurretik administrazio kontratatzaileak jarduera hauek egin ez baditu:

- Jardueran parte hartzen duten enpresei lantokiko arriskuen berri ematea, hain zuzen ere bertan garatu beharreko jardueretan eragina izan dezaketena, baita arrisku horiei aurrea hartzeko neurrien berri ematea ere.
- Enpresa kontratatari larrialdietarako neurrien berri ematea.

Lantoki horretan, enpresa bat baino gehiagoko langileek lan egin behar badute, jarduera abian jarri baino lehen, Jarduera enpresarialen koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez, enpresa eta langile autonomo guztiek elkarlanean jardun beharko dute, eta garatuko dituzten jardueren berriazko arriskuei buruzko informazioaren elkartrukea egin beharko dute, hain zuzen arrisku horiek beste enpresetako langileengan eragina izan badezakete. Enpresa bakoitzak bere langileei jakinaraziko dizkie jarduera aldibereotasunagatik sortzen diren



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

arriskuak, eta beharrezko koordinazio bitartekoak jarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da lan arriskuen ebaluazioa eta dagozkion prebentzio jardueren plangintza egiteko orduan.

Jarduera abian jarri baino lehen, kontratistak eta, halakorik badago, azpikontratistak aurkeztu beharko dute administrazio kontratatzailearen eskutik lantokiko eta bertako instalazioetako berariazko arriskuen, jarduerari eragin diezaieketen lantokiko arriskuen eta arrisku horien prebentzioko eta larrialdi kasuetarako neurrien inguruko dokumentazioa jaso izanaren agiri sinatua.

5.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

37.2.6.- Informazioaren segurtasunaren esparruko baldintzak

1.- Esleipendunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen edozein pertsonak horiei buruzko sekretu profesionala mantendu beharko du, eta datu horiek babestu beharko ditu. Obligazio horiek indarrean egongo dira entitate kontratatzailearekin duen harremana amaituta ere.

2.- Enpresa kontratistak kontratua betetzeko beharrezko izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen erabilera datu pertsonalen babesaren esparruan indarrean dagoen legeria betez egingo da; baita entitate kontratatzaileak xedatutakoa betez ere.

3.- Esleipendunak ezingo ditu datu horiek hirugarrengei laga edo kontratua betetzeko helburu zehatzak ez diren beste helburuetarako erabili.

4.- Esleipendunak, datu horien tratamendurako arduradun gisa, datu pertsonalen segurtasunerako beharrezkoak diren neuri tekniko edo antolakuntzazkoak aplikatuko ditu, datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea saihesteko, aukera horiek bai giza jardueratik beretik bai ingurune fisiko edo naturaletik datozenak izan daitezkeelarik.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5.- Kontratuaren iraunaldian zehar, entitate kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du esleipendunak, hain zuzen ere segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.

6.- Kontratuko prestazioa amaitu ondoren, esleipendunak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu beharko ditu, edo itzuli beharko dizkio entitate kontratatzaileari edota Administrazioak izendatutako tratamendurako arduradunari.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketara administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

37.3.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak

1.- Lanak behar bezala egiteko behar diren baimen edo lizentzia guztiak lortzea enpresa kontratistaren erantzukizuna eta kontua da, non eta kontratazio organoak bere kasa kudeatzea erabakitzen ez duen; eta haien gaineko eskumena dutenek ezarritako baldintzak eta ezaugarriak bere kontura bete behar ditu kontratistak.

2.- Baimenak edo lizentziak eskuratzeak tasa, fidantza edo bestelako gasturen bat baldin badakar, horien ordainketak edo horietarako gordailua egitea ere enpresa kontratistaren kontua izango da.

37.4.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak

Kontratistaren kontura dira kontratua formalizatzeko gastuak, eskritura publikoa egiten den kasuetan, eta baita kontratua betetzera eta obraren gai diren ondasunak egoki ematera begirako lizentzia eta baimen guztiak ere. Esleipendunaren kontura izango dira, era berean, obra entregatzeko eta baldintza-agirietan edo dokumentu kontratuan zehaztutako lekura garraiatzeko gastuak.

37.5.- Obraren instalazio eta prestazio osagarrietarako baldintzak

1.- Esleipendunak bere kontura egin beharko ditu obrak eskatzen dituen instalazioetarako beharrezko jardun guztiak, tartean direla beren neurri eta zailtasun



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

maila txikia dela-eta obraren osaketan espresuki jaso ez diren beharrezko elementu osagarriak, non eta ezaugarri teknikoen baldintza-agiriak ez duen bestelakorik ezartzen.

2.- Ezaugarri teknikoen baldintza-agirian horrela ezarriz gero, enpresa esleipendunak prestakuntza-ikastaroak edo bestelako prestazio osagarri batzuk eskainiko ditu, ondasun hornituak egoki erabiltzeko beharrezkoak, alegia. Hori guztia kontratazio organoarentzako inolako kosturik gabe.

37.6. Lan programa

1.- Administrazioak egoki iritziz gero ezaugarri teknikoen baldintza-agirian ezarriarekin bat lan programa bat eskatzeari, esleipendunak programa hori aurkeztu beharko dio Administrazioari, honek, hautatutako aukerari buruzko dokumentuekin batera, onartu eta, hala badagokio, epe partzialak finkatu ditzan.

2.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, esleipendunak gaurkotu eta egunean jarri beharko du programa hori, horretarako jasotzen dituen jarraibideen ildotik joz betiere.

38.- Zehapenak: berandutzagatikoa eta beste batzuk

1.- Kontratazio organoak, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarriarekin bat, zehapenak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, ondoren adierazten diren ez-betetzeengatik:

- a) Guztirako epea edo epe partzialak betetzeko berandutzagatik.
- b) Prestazioa akatsez betetzeagatik, kontratazio publikoari aplikatzeko hizkuntza baldintzak, jokaera kodea eta erakundearen zuzentasun esparrua edota beste edozein betetze baldintza berezi ez bete edo akatsez betetzeagatik (SPKLren 192. artikulua).
- c) Ez-betetze edo akatsezko betetzeagatik, eskaintzak baloratzeko irizpidetzat kontuan hartutako alderdiei dagokienez (SPKLren 122. artikulua).
- d) Soldaten ordainketako ez-betetze edo atzerapen errepikatuengatik edo hitzarmen kolektiboetatik ondorioztatzen direnen



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

azpitiko soldata-baldintzak aplikatzeagatik, aplikazio hori larri eta dolozkoa denean (SPKLren 201. artikulua).

- e) Azpikontrataziorako obligazioak, baldintzak eta bestelako eskakizunak urratzeagatik (SPKLren 215. artikulua).
- f) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzeagatik, hori galdagarria denean.

2.- Aurreko puntuko ez-betetzei lotutako zehapenen zenbatekoa honako hau izango da:

- a) a) letran jasotako arrazoiarengatik, SPKLren 193. artikuluko 3. apartatuan aurreikusten den zenbatekoa, non eta ezaugarrien taulako **26. apartatuak** ez duen besterik ezartzen.
- b) b), c) eta d) letretan jasotako arrazoiengatik, kontratuaren prezioaren % 4, non eta kontratazio organoak, arrazoi bidez, larri edo oso larri irizten ez dion ez-betetzeari, horrelakoetan % 7raino iritsi ahal izango baita larrien kasuan, eta % 10eraino oso larrienean. Ez-betetzea errepikatzea kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.
- c) e) letran jasotako arrazoiarengatik, azpikontratuaren zenbatekoaren % 50eraino.
- d) f) letran jasotako arrazoiarengatik, euro 1 egunean kontratuko prezioko 5.000 euroko; kopuru hori, hala dagokionean, lehenbiziko ziurtagirian deskontatuko da.

3.- Kontratuaren ezaugarri bereziak direla eta hori behar bezala gauzatzeko beharrezko iritziz gero aurreko apartatuan adierazitakoez besteko zehapen batzuk finkatzeari, ezaugarrien taulako **26. apartatuan** zehaztuko dira horiek.

4.- Enpresa kontratista berandutze-egoeran sartzeko ez da behar Administrazioak, alde aurretik, betetzeko agindua ematea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5.- Bitartekoak atxikitzeko konpromisoa, hizkuntza baldintzak edo esleipeneko baldintza berezietako beste edozein ez betetze edo akatsez betetzeagatiko zehapenak kontratazio organoak ez-betetzea egiaztatzen duen unean ezarriko dira.

6.- Eskaintzak baloratzeko irizpidetzat kontuan hartutako alderdiei eragiten dieten ez-betetzeagatiko edo akatsez betetzeagatiko zehapenak ezarriko dira, hain zuzen kontratazio organoak, harreraren unean, egiaztatzen duenean kontratistari egozteko moduko arrazoiak direla-eta horrek ez duela kontratua –edo esleipenera begira garrantzitsua izan den eta eskaintzan bere gain hartutako konpromisoetakoren bat– bete.

Bete gabeko konpromisoak garrantzitsuak direla joko da baldin eta, kontratistak bete ez duen irizpidean lortu duen puntuazioaren % 50 deskontaturik, gertatzen bada haren eskaintza ez zela ondoen baloratua izango.

7.- Akatsezko betetzeagatiko zehapenak ezarriko ere, kontratistak legezko obligazioak izango ditu akats horiek konpontzeari dagokionez.

8.- Hondatze errazeko ondasunen edo entregarako finkatutako datatik kanpo jasoz gero baliorik ez duten ondasunen kasuan (prestazio berreskuraezinak), kontratistak ez duenean hitzartutako epean eta lekuan hornitzen eta ez-betetze horren eraginez organo kontratatzaileak beste prozedura baten bitartez eskuratu behar dituztenean ondasun horiek, hain zuzen ere kontratu honek ase behar dituen zerbitzu publikoak behar bezala atendituta mantentzearen, zehapen bat ere jarriko zaio esleipendunari, berandutzak organo kontratatzaileari eragindako kostu handiagoaren pare.

9.- Zehapena ezartzeak ez du galera eta kalteengatiko saritik salbuesten (SPKLren 196. artikulua).

10.- Berandutzagatiko zehapenen zenbatekoa faktura edo ziurtagirietatik kenduko da eta, hala dagokionean, bermetik, aipatu beste dokumentuetatik kentzerik ez dagoenean. Bermearen gainean gauzatzen direnean, kontratistak birjarri edo handitu egin beharko du hura, gauzatzetik 15 egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

39.- Kontratuaren aldaketak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 1.- Kontratua burutzen denean, kontratazio organoak bakar-bakarrik interes publikoagatiko aldaketak sartu ahal izango ditu bertan, horrela aurreikusten bada ezaugarrien taulako **24. apartatuan**, edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako balizkoetan eta mugekin.
- 2.- Kontratuaren xedean aldaketak sartzea beharrezkoa suertatzen denean, kontratuaren arduradunak beharrezko proposamena idatziko du, proposamena justifikatu, deskribatu eta baloratzen duten dokumentuekin batera. Administrazioak aldaketa onartu aurretik, enpresa kontratistari entzunaldia eman beharko dio.
- 3.- Ezaugarrien taulako **24. apartatuan** aurreikusitako aldaketak eta SPKLren 205. artikuluan jasotako kontratu aldaketarako balizkoetan egokitzen direnak, bakarka edo elkarrekin kontratuaren hasierako prezioaren % 20ko aldaketa gainditzen ez duen aldaketa eragiten dutenean –BEZa kanpo–, nahitaezkoak izango dira, betiere, kontratistarentzat, eta kontratazio organoak erabaki beharko ditu, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOren 102. artikuluan aurreikusitako prozedura aurrez tramitatuta, eta dokumentu administratiboan formalizatu beharko dira, SPKLren 153. artikuluan adieraziarekin bat, hala dagokionean behin betiko bermea aurrez birdoituta.
- 4.- Ez kontratistak, ez kontratuaren arduradunak, ezingo dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik sartu edo egin. Administrazioak behar bezala baimendu gabeko kontratu aldaketek enpresa kontratistaren ardura eragingo dute. Horrek, hala dagokionean, aldaketak izan dituzten alderdiak berregin beharko ditu, inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.
- 5.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak gaurkotu egin beharko du laneko programa.

39.1.- Aldaketa aurreikusiak

- 1.- Kontratu hau aldatu ahal izango da, horrela aurreikusi bada, baldintza-agiri honetako ezaugarrien taulako **24. apartatuan** zehazten denaren arabera, betiere hartan finkatutako baldintza, irismen eta mugekin, eta aldaketek hasierako prezioaren % 20tik gora egin gabe.
- 2.- Aldaketarako arrazoi bat baino gehiago aurreikusiz gero, jaso egin beharko dira horietako bakoitzeko zertzeladak, baldintzak, irismena eta mugak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3.- Aurreikusten diren aldaketek ezingo dute, inolaz ere, kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk finkatzea eragin.

4.- Hornitzekoak diren unitateen kopurua handitu ahal izango da SPKLren 205.2.c).3 artikuluan aipatutako ehunekoraino (kontratuaren prezioaren % 10), eta ez da beharrezkoa izango aldaketa espedienterik tramitatzea ezaugarrien taulako **24. apartatuan** hala jasotzen denean.

39.2.- Aldaketa aurreikusi gabeak

1.- Ezaugarrien taulako **24. apartatuan** aurreikusitakoez bestelako aldaketak sartu ahal izango dira, interes publikoko arrazoiak direnean, bakar-bakarrik behar beste justifikatzen denean SPKLren 205.2 artikuluan jasotzen diren balizko tasatuetako bat edo batzuk gertatzen direla, eta betiere aldaketa horiek mugatzen badira eragile izan duten arrazoi objektiboari erantzuteko ezinbesteko aldaketei erantzutera.

2.- SPKLren 205. artikuluan ezarriaz gain, balizko horietan kontratua aldatzeari ekin aurretik entzunaldia eman beharko zaio zehaztaperen teknikoak idatzi dituen pertsonari, zehaztaperen horiek prestatu dituen kontratazio organotik kanpoko hirugarren pertsona bat izan denean zerbitzu kontratu baten indarrez, hain zuzen 3 egun naturaletik beherako epean formula ditzan egoki deritzen kontsiderazioak.

40.- Kontratatari egin beharreko ordainketak

1.- Obraren ordainketa entrega egin eta adostasunez jaso ondoren egingo da, aurrez aurkeztuta, betiere, fakturak edo dokumentu baliokideak, ziurtagiriak entrega partzialak direnean, eta harrera-akta hala dagokionean. Horretarako, entrega-datatik 30 egun naturaleko epea izango du kontratatariak, faktura aurkezteko.

2.- Kontratatariak eskubidea izango du kontratuaren betetzea prestatzeko lanen zenbatekoa kontura ordain dakion, baldin eta lan horiek kontratuaren xedean sartuta badaude, ezaugarrien taulako **28. apartatuan** adierazitako baldintzen arabera. Konturako ordainketa horiek bermea jarrita ziurtatu beharko dira.

3.- Fakturak formatu elektronikoa aurkeztu beharko dira abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

helbide honetara: <https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua>, horretarako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

- 1.- Kontabilitate Bulegoa: L01200420
- 2.- Organo kudeatzailea: L01200420
- 3.- Unitate izapidetzailea: L01200420

Balizko horietan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bitartez faktura elektronikoa aurkezteak idazpen automatikoa sorraraziko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren sarrera erregistro orokorrean, eta beste idazpen bat, halaber, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontabilitate Zerbitzuak kudeatzen duen fakturen kontabilitate erregistroan.

4.- SPKLren 198. artikuluan ezarriarekin bat, egindako obrak kontratuan xedatuarekin bat datozela egiaztatzen duten dokumentuak onartzen diren datatik hurrengo 30 egun naturaleko epearen barnean prezioa ordaindu beharko du Administrazioak; eta berandutzaz jardunez gero, 30 egun naturaleko epe hori betetzen denetik aurrerako berandutza-interesak eta kobrantza-kostuengatik kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, artikulua honetan bertan aurreikusten den moduan.

5.- Edonola ere, enpresa kontratistak ez badu erregistro administratiboan faktura aurkezteko duen 30 egun naturaleko epea betetzen, interesak ez dira hasiko sortzen, harik eta faktura dagokion erregistroan aurkeztu eta 30 egun natural igaro arte Administrazioak, hala badagokio, faktura ontzat emateke eta ordaintzeke.

6.- Bestetik, emandako obrak kontratuan xedatuari egokitzen zaizkiola egiaztatzen duten dokumentuak onartu beharko ditu Administrazioak, ondasunen entrega efektiboaren ondoko 30 egun naturalen barnean.

7.- Fakturretan ondoko datu hauek jaso beharko dira:

- Erakunde kontratatzailearen identifikazioa.
- Kontratazio organoaren identifikazioa.
- Kontabilitate publikoaren arloko eskumenak dituen organoaren identifikazioa.
- Prestazio kontratatuaren hartzailearen identifikazioa.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

8.- Kontratuaren finantzaketan Foru Aldundiko departamentu bi edo gehiagok parte hartzen badute, edo beste entitate edo organismo batzuek ere finantzatzen badute, finantzaketan konpromisoa duen alderdi bakoitzak partaidetza horrekiko proportzioan ordainduko dio kontratistari kontratu betea, ezaugarrien taulako **8. apartatuan** jaso moduan alegia, eta ezaugarrien taulako **9. apartatuan** adierazten den ordainketa-hurrenkerari jarraikiz.

9.- SPKLren 200. artikuluan xedatuarekin bat, eta bertan ezartzen diren baldintzetan, kontratistek, legez ezarritako bideren batetik, hirugarren pertsona bati laga ahal izango diote kontratuaren prezioa kobratzeko duten eskubidea. Lagapenak ondorioak izan ditzan eta Administrazioak lagapen-hartzaileari ordaintzeko agindua eman dezan, Administrazioari modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio lagapen horretarako akordioa.

41.- Mantentzea

Esleipendunak obraren xede diren ondasunetarako mantentze-lanak egingo ditu, ezaugarri teknikoen baldintza-agirian jasotzen diren baldintzetan.

42.- Kontratua etetea

Kontratua etenez gero, SPKLren 208. eta 306. artikuluetan eta HAKLEOren 103. artikuluan xedatua aplikatuko da. Aldi baterako etete, etete partzial, etete oso edo behin betiko etete kasuetan, etete horren akta egingo da.

43.- Harrera eta berme epea

43.1.- Harrera eta likidazioa

1.- Obraren xede diren ondasunak kontratuan ezarritako lekuan eta denboran entregatu beharko ditu enpresa kontratistak, ezaugarri teknikoen agirian eta baldintza administratiboen agirian adierazitakoari jarraituz. Eta, obra egiten hasi aurretik, ezaugarri teknikoen baldintza-agirian aipatutako dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko du horrela ezartzen bada.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 2.- Obra ondasunak emateak eta adostutako lekuraino garraiatzeak eragindako gastuak enpresa kontratistaren kontura izango dira.
- 3.- Enpresa esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ondasunak Administrazioaren esku utzi aurretik gerta litezkeen galera, matxura edo kalteengatik, non eta Administrazioa bera ez den berandutzaz aritu ondasunak jasotzeko unean.
- 4.- Ondasunak jasotzeko egintza formala, baldintza-agiriko baldintzen arabera, ondasunak entregatu ondoren egin behar bada, Administrazioaren erantzukizuna izango da entregaren eta jasotzearen arteko bitarte horretan ondasunak zaintzea.
- 5.- Ondasun edo produktu galkorren kasuan, Administrazioak adostasuna adieraziz haiek jaso ondoren, berea izango du haiek kudeatzeko, erabiltzeko edo galtzen ez uzteko ardura, hargatik eragotzi gabe ondasun edo produktu horien ezkutuko akats edo hutsengatik hornitzaileak izan dezakeen erantzukizuna.
- 6.- Enpresa kontratistak kontratua bete duela esango da, xedea oso-osorik kontratuan ezarri bezala eta Administrazioaren adostasunarekin gauzatu duenean.
- 7.- Kontratuaren xede amaitzen denetik hasi eta hilabeteko epean, obraren xede diren ondasunak hartuko dira, egintza formalean.

43.2.- Berme epea

- 1.- Berme epea ezaugarrien taulako **13. apartatuan** ezarria izango da edo, bestela, esleipendunak eskainia.
- 2.- Epe horretan zehar egiaztatzen bada kontratazio organoari emandako edo haren eskura jarritako ondasunetan ezkutuko akats edo hutsen bat dagoela, kontratazio organoak eskubidea izango du horiek konpontzea erreklamatzeko, SPKLren 305. artikuluan adieraziarekin bat.

43.3.- Bermea itzultzea

Ezaugarrien taulako **21. apartatuan** adierazitako berme epea igarotzen bada Administrazioak inolako eragozpenik adierazi gabe, egindako obraren gaineko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

erantzukizun orotatik libre geratuko da kontratista, eta behin betiko bermea itzuli edo deuseztatu egingo da horrenbestez.

44.- Kontratua suntsiaraztea

1.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLren 211. eta 306. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

Kontratua suntsiarazte hori HAKLEOren 109. artikuluan eta hurrengoetan zehazten den prozedurarekin bat izapidetuko da, suntsiarazte prozedura abiatzen datatik hasita 6 hilabeteko epean, eta SPKLren 213. eta 307. artikuluetan aipatzen diren ondorioak izango ditu.

2.- Gainera, kontratazio organoak kontratua suntsitu ahal izango du kontratupeko obra betetzeko ezarritako epe osoan ez-betetzetik gertatuz gero, edo, arrazoi bidez, epe partzialetan gertatu ez-betetzeak direla eta guztirako epea betetzea ezinezkoa izango dela iritziz gero, betiere kontratazio organoak ez badu erabakitzen SPKLko 193.3 artikuluan xedatutako zehapenak jartzea.

3.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izan daitezke, halaber, honako hauek:

- a) Kontratua gauzatu bitartean, kontratuari atxikitako langileei kontratistak soldatak ez ordaintzea, edo langile horientzat indarrean dauden lan hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

Kontratuaren suntsiarazpena, oro har, enpresa kontratistako langileen ordezkariak eskaturik bakarrik erabakiko da; soldatak ez ordaintze horrek eragiten dien langileak SPKLren 130. artikuluekin bat subrogazioa bidezkoa den langileak direnean eta enpresa kontratistak zor dituen soldatek kontratuaren esleipen prezioaren % 5etik gorakoak direnean, aldiz, kontratazio organoak erabaki ahal izango du, zuzenean, kontratua suntsiaraztea.

- b) Baldintza-agiri honen arabera laneko segurtasun eta osasun arloko oso ez-betetze larria gertatzea.

4.- Era berean, suntsiarazpen arrazoia izango da, SPKLren 211. artikuluen babesean, ez betetzea **23 klausulan** adierazitako obligazioak eta ezaugarrien taulako **23. apartatuan** kontratuko funtsezko betekizuntzat jasotako obligazioak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5.- Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, elkartekideetakoren bat SPKLren 211.1 artikuluko a) eta b) letretan jaso balizkoan sartzen denean Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten beste enpresei kontratuko obligazioak betetzea eskatzeko edo kontratua suntsiaraztea erabakitzeko.

6.- Hala ere, ez-betetzeengatiko zehapenak kontratuko prezioaren % 5aren multiploa direnean, kontratazio organoak kontratua suntsitzea edo, zehapen berriak ezarriz, kontratuak jarraitzea erabaki ahal izango du.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA.(Laster jarriko da eskura lizitazio elektronikoa, enpresek beharrezko eskakizunak betetzeko aipatzen ditugu baldintzak)

a)Kontratazio prozeduretako izapideetarako (dokumentuak bidali, kontratuak sinatu, jakinarazpenak jaso...) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak.

1.1.Baldintza administratiboak:

Ziurtagiri digital bat izatea, izapide elektronikotarako baimendutako erabilera duena. Gaur egun, honako hauek dira ziurtagiri elektronikorako horiek:

- a. Izenpe (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
 - b. FMNT (entitatea, herritarra, entitatearen ordezkaria).
 - c. Nortasun agiri nazional elektronikoa
 - d. Camerfirma (entitatea, herritarra)
- Egoera hauetako batean egotea:
- a) Alta emanda egotea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea Euskadiko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan.
 - b) Alta emanda egotea lizitazio elektronikorako aldi baterako gaikuntzako sisteman.
 - c) Bi operadore ekonomiko edo gehiago elkarrekin aurkezten badira, formalki aldi baterako enpresa elkarte gisa (ABEE) eratzeko konpromisoa hartuta, ABEEaren konpromisoa aldi baterako gaikuntzako sisteman erregistratuta egon beharko da.

1.2 Baldintza teknikoak:

Elektronikoki lizitatzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa lotura honetan aurkitu daiteke:

http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/eu/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/eu_02/requisitos_tecnicos.html

1.3Lizitazio elektronikoaari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua: 945 016298.

2.Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko modua:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Sistema erabili ahal izateko, atari honetan sartu beharko da:

www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK.

Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak Kontratazio Publikoa Euskadin Plataformako egoitza elektronikoaren bidez egingo dira. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko zaio enpresari, horretarako zehaztutako helbide elektronikora.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

II. ERANSKINA.- EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Lizitatzailleak EKAB aurkeztea hark lizitazio prozedura honetan parte hartu ahal izateko baldintza-agiri honetan zehazten diren AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN dituelako aurretiazko froga da.

Enpresen egoera finantzarioari, gaitasunei eta kontratazio publikorako prozedura batean parte hartzeko egokitasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena da EKAB, eta lizitatzailleek agiri hori aurkeztu beharko dute, SPKLren 140. artikularekin eta agiriaren formulario normalizatu eta betetzeko jarraibideak ezartzen dituen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Batzordearen Betetze Erregelamenduekin (EB) bat.

Kontratazio organoak bere ahalmenak erabili ahal izango ditu, BAT zenbakiko artxibo elektronikoan aurrez aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatzeko, horretarako beharrezko frogagiriak aurkeztea eskatuz, 39/2015 Legearen 69. artikulua jasotzen dituen baldintzetan betiere.

Edonola ere, lizitatzailleak EKAB aurkezten badu konpromiso bat hartzen du bere gain, kontratuaren esleipena aldekoa badu EKAB agiriak ordezkatzeko dituen frogagiriak aurkezteko zehazki, 33.2 klausulan aurreikusiarekin bat.

2.- EKABen formulario normalizatua.

EKABen formulario normalizatua lizitatzailen eskura dago honako helbide elektroniko honetan:

<https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es>.

3.- Jarraibideak.

Dokumentuan adierazten diren baldintza guztiak bete egin behar dira, edonola ere, lizitazio epearen azken egunean, kontratatzeko galarazpenak izan ezik, horiek kontratua formalizatu arte segitu behar baitute gutxienez. Administrazioak egiaztapenak egin ahal izango ditu, betiere, prozedurako edozein unetan.

Adierazpenak behar besteko ahala duen batek sinatuta egon behar du.

Kontratuaren gaia **sortatan zatitzea** aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak lotetik lotera aldatzen badira, Europako kontratazio agiri bakar bat aurkeztuko da kaudimen baldintza berberak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzeko edo sorta talde bakoitzeko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eskatzen den bitarteko atxikipena kanpo bitartekoz betetzen badu lizitatzailleak, honek bere EKAB aurkeztu beharko du, eta EKAB bana, gainera, kontratua betetzeari atxikitako bitarteko bakoitzeko.

Enpresa batzuk **aldi baterako elkartea** eraturik aurkezten badira, elkartekide bakoitzak bere nortasun, gaitasun eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, eta guzti-guztiek dagokien EKAB formulario normalizatua aurkeztu beharko dute. EKAB formulario normalizatuaz eta ABEEa eratzeko konpromisoaz gain, edo, hala dagokionean, behin-behineko bermearen frogagiriaz gain, BAT zenbakiko artxibo elektronikoa lizitatzailleen adierazpena jaso beharko da, baldintza-agiri honetako **V. eranskin**eko ereduarekin bat, enpresa-talde batekoak diren ala ez adierazi beharko baitute horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaillearen Erregistroan edo estatuko Lizitatzaillearen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan **izena emanda** dauden **enpresek** ez dute inskripzio horretan dagoeneko gaurkotuta dituzten datuak zertan eman, betiere zertzelada hori adierazten bada EKABen formulario normalizatuan. Edonola ere, lizitatzailleak berak ziurtatu behar du zer datu dauden egiaz jasota eta gaurkotuta eta zer datu ez. Eskatutako datu edo informazioetakoren bat ez dagoenean aipatutako lizitatzaillearen erregistroetan erasota, edo horietan gaurkotuta ez badago, formularioa betez eman beharko da datu edo informazio hori.

EKAB formulario normalizatuaren erabilerari dagokionez, lizitatzailleek ondoko **dokumentu** hauek **kontsultatu ahal izango dituzte**:

2016/7 zk.ko Erregelamendua (EB), web honetan eskuragarri dagoena:

<https://www.boe.es/doue/2016/003/L00016-00034.pdf>

Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen gomendioa, 2016ko apirilaren 6koa, helbide honetan eskuragarri dagoena:

http://www.minhap.gob.es/Documentacion/Publico/D.G.%20PATRIMONIO/Junta%20Consultiva/Informes/Informes%202016/Recomendacion%20de%20la%20JCCA%20sobre%20el%20DEUC%20aprobada%20el%206%20abril%20de%202016%20_3_.pdf

4.- Prozedura honetarako formulario berezia duen XML artxiboa kontratatzailearen profilean dago.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

**III. ERANSKINA.- ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA ERATZEKO
KONPROMISOAREN EREDUA**

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena

NAN-IFZ

	Norberaren izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean
	Ordezkatuaren sozietate izena:
	Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena

NAN-IFZ

	Norberaren izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean
	Ordezkatuaren sozietate izena:
	Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena

NAN-IFZ

	Norberaren izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ordezkatuaren sozietate
izena:

Ordezkatuaren IFK:

*(*Eredua egokitu behar da, esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzeko duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko)*

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

Erreferentzia kodea

ADIERAZTEN DUTE

- a) Konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkarte gisa formalki eratzeko, erreferentziako kontratuaren esleipendun gertatuz gero, honako partaidetza portzentaje honekin:

Enpresaren izena	%

1. Honako hau izendatzen dutela enpresa elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar, kontratutik ondorioztatzen diren eskubideak baliatu eta obligazioak betetzeko behar beste ahalmenez:

Izen-abizenak	
---------------	--



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Tokia eta data:

<i>Enpresaren izena</i>	<i>Sinadura</i>
<i>Enpresaren izena</i>	<i>Sinadura</i>
<i>Enpresaren izena</i>	<i>Sinadura</i>



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IV. ERANSKINA.- BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISO ADIERAZPENAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena

NAN-IFZ

	Norberaren izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean
	Ordezkatuaren sozietate izena:
	Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

Erreferentzia kodea

ADIERAZTEN DU

Konpromisoa hartzen duela kontratuaren exekuziorako behar diren baliabide eta bitarteko hauek atxikitzeko:

	Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:
	Bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Toki eta data:

<i>Enpresaren izena</i>	<i>sinadura</i>
-------------------------	-----------------



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

V. ERANSKINA.- ENPRESA TALDEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena

NAN-IFZ

	Norberaren izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean
	Ordezkatuaren sozietate izena:
	Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

Erreferentzia kodea

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen duen enpresa:

	BADAGOELA Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean.
	EZ DAGOELA Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan aurreikusitako inolako egoeratan.

Erantzuna baiezkoa bada:

	EZ du kontratuaren esleipenean parte hartzen, ordea, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste inolako enpresarekin batera, ezta Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dagoen ezeinekin batera ere.
	BAI, kontratuaren esleipenean parte hartzen du banakako proposamena aurkezten duten talde bereko beste enpresa batzuekin edo Merkataritza Kodeko 42.1 artikuluan jasotako kasuren batean dauden enpresekin batera; enpresa horiek honako hauek dira:

IFZ/IFK	Sozietate izena



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

--	--

(*) Merkataritza Kodeko 42.1 artikulua:

“Edozein sozietate taldetako sozietate nagusiak atal honetan aurreikusten den bezala eman behar ditu urteko kontu eta kudeaketa txosten finkatuak.

VI. ERANSKINA.- KONFIDENTZIALTZAT JOTAKO DOKUMENTU ETA DATU AURKEZTUEI BURUZKO ADIERAZPEN OSAGARRIRAKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena

NAN-IFZ

	Norberaren izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren sozietate
izena:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

Erreferentzia kodea

ADIERAZTEN DU



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Sekretu tekniko edo komertzialekiko lotura dela eta, konfidentzialtzat jotzen dituela ondoren aipatzen diren eskaintzako **dokumentu, informazio eta alderdiak**:¹

a)

1.-

2.-

.....

Datu horiek konfidentzialak dira arrazoi hauengatik:

a)

1.

2.

.....

Toki eta data:

<i>Enpresaren izena</i>	<i>sinadura</i>
-------------------------	-----------------

¹ Konfidentzialtasun adierazpenak ezingo ditu hartu ez enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia ez eskaintza teknikoko egiaztapen dokumentazio guztia. Kasu horretan, edo adierazpen horri neurri desegokia ematen bazaio, kontratazio organoak zehaztuko du zer datu edota dokumentu jo behar diren konfidentzial. Enpresak ez badu berriaz konfidentzial jotzen daturik edota dokumenturik, ulertuko da aurkeztu dituen datu edota dokumentuetan ez dagoela konfidentziala den batere. Era berean, eskaintzak aurkeztu ondoren ez da onartuko aurkezpenaren unean konfidentzial jo ez den daturik konfidentzial jotzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

VII. ERANSKINA. - ABAL EREDUA

KREDITU ENTITATEAREN EDO ELKAR BERMATZEKO SOZIJETATEAREN DATUAK

Izen soziala

IFZ

Jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidea:

Kalea, plaza, hiribidea...

Zk.

Solairua

Eskua

Udalerria

P.K.

Probintzia

AHALDUNA(K)

Izen-abizenak

IFZ

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean honako honen abalemaile solidario moduan eratzen dira goian aipatutako entitatea eta, bere izenean eta ordezkartzan, egintza honetan hura behartzeko ahalorde nahikoak dituzten pertsonak, dokumentu honen behealdean aipatutako ahalorde-askiespenaren arabera:

PERTSONA EDO ENTITATE ABALATUAREN DATUAK

Izen-deiturak / Sozietate izena

IFK / NAN

Berme mota

Behin-behinekoa (SPKLren 106. artikulua)

Behin betikoa (SPKLren 107. artikulua)

Kontratuaren xedea edo abalatuak bere gain hartutako betebeharra



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontratazio organoa

Abalaren zenbatekoa (letraz eta zenbakiz)

Entitate abal-emaileak bere erantzukizunez aitortzen du betetzen dituela Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren 56.2 artikulua aurreikusten dituen baldintzak. Abal hau solidarioki ematen da obligaziodun nagusiarekiko, berariaz uko eginez eskusio onurari, eta kontratazio organoak egin lehen errekerimenduaz ordaintzeko konpromisoaz, Herri Administrazioen kontratuei buruzko legedian, hori garatzeko arauetan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauan aurreikusten diren baldintzetan betiere.

Abal hau indarrean egongo da, harik eta kontratazio organoak edo horren izenean jardunez lege horretarako gai denak, deuseztatzeko edo itzultzeko baimena ematen duen arte, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legean eta legedi osagarrian ezarritakoarekin bat.

Tokia eta data:

Entitatearen sozietate izena:

Ahaldunen sinadura:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

VIII. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena

NAN-IFZ

	Norberaren izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean
	Ordezkatuaren sozietate izena:
	Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena

Erreferentzia kodea

Jakinda zeintzuk diren kontratazio espedienteari dagokionez eskatzen diren baldintzak eta beharkizunak, proposatzen d(it)u honako prezio hau(ek) eta, hala badagokio, formula bidez ebaluagarriak diren gainerako elementuen eskaintzak:

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA

OINARRIA	
%.... BEZa	
<u>GUZTIRA</u>	

2.- FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO BESTE ELEMENTU BATZUK

Hitzarmen kolektiboaren aitortzea, aplikagarri dena kontratua burutzen duten langileei.

Toki eta data:

91
GB 20180727



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

<i>Enpresaren izena</i>	<i>sinadura</i>
-------------------------	-----------------

IZERA PERTSONALEKO DATUEN BABESERAKO INFORMAZIOA

Datuen babeserako araudia betez, adierazten dugu formulario honetan jasotako datu guztiak Ibarra udalak bildu eta bere erantzukizunean tratatuko direla Ibarra udalari Belabieta kiroldagiko iragazgaizte lanak lizitzatzeko helburuarekin.

Bilduta izan zireneko helburua betetakoan, ezeztatu egingo dira eta soilik mantenduko dira legezko betebeharrak eta erantzukizunak betetzeko, horiek irauten duten bitartean.

Datu hauen tratamendua eskatzaileak baimenduta dago eta ez dira hirugarren batzuei lagako bere baimenik gabe, ez bada hala arautzen duten legeak betetzeko.

Datuak tratatzeko, Ibarra udalak jakinarazten du egoki jotako segurtasun neurriak ezarri dituela eta langileei formakuntza eman diela, datuen pribatasuna mantentze aldera eta galera, erabilera okerra, aldaketa, baimendu gabeko sarbidea eta lapurtzea saihesteko, Izaera Pertsonaleko Datuen babeserako araudia betez.

Eskatzaileak, bere helbide elektronikoa ematean, **Ibarra udala baimentzen du** komunikazio bide gisa erabiltzeko, eragiten dioten administrazio egintzen komunikazio eta jakinarazpenerako, balio sinesgarriarekin.

Interesdunak edozein unetan du bere datuen gaineko sartzeko, zuzentze, ezeztatze/kentze, aurkaratze, mugatze eta eramangarritasun eskubidea. Horretarako eskaera egin behar du **Ibarra udaleko** datuen babeserako arduradunari, San Bartolome 2, 20400 Ibarra edo mezu bat bidali ibarra@barra.eus helbidera eta bi kasuetan honakoa adierazi: "Gaia: DBLO eskubideak"; horrekin batera bere nortasuna egiaztatzeko agiriaren kopia erantsi behar du indarrean dagoen araudia betez.

Eskatzaileak uste badu bere eskubideak ez direla behar bezala errespetatu, arlo horretan eskumena duen organora jo dezake: Datuen babeserako agentzia (www.aepd.es).

Ibarra udalak eskubide du eskatzaileak emandako datuak egiaztatzeko. Horretarako, lizitzatzaileek baimena eman beharko dute.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ikusirik onartu ziren plegu teknikoetan Euskal Herria 65 eta Euskal Herria 64-83 kaleetarako NEBRASKA marka eskatu zuela Ibarra Udalak (nahiz eta eskaera justifikagarria zen kale horretan derrigorrez Nebraska argiteria edo itxura berdinekoa zen argiteria behar baita kalean berdintasun itxura mantentze aldera) eta erredakzio hori, printzipioz 9/2017 Sektore Publikoko Kontratu Legeak bere 126.6 eta 99 artikuluen arabera, "antzeko" esaldiarekin osatu beharko litzatekela: kontratazio mahaiak Nebraska argiteria eskatu den kaleetako argiteria, prozedura honetatik kanporatzea erabaki du.

Pleguen aurka lizitatzailleek ez zituzten alegaziorik egin eta beraien eskaintzak aurkeztu zituzten; egintza honekin osoki onartzen dutelarik plegu administratibo eta teknikoetan ezarritakoa.

Legea betetze aldera eta berdintasun egoeran partehartzaileak parte har dezaten (eta ikusirik 12 argiteria horiek prozesutik kanporatzeak ez duela indefentsioa sortzen ez eta aurkezturiko prezio proposamenean aldaketarik sorrarazten), 12 argiteria horiek esleipen prozesu honetatik kanporatzea erabakitzen du kontratazio mahaiak.

Aurkeztutako proposamenen birkalkulua burutzen da; argiteria unitateen prezioetatik Euskal Herria 65 eta Euskal Herria 64-83 kaleetako argiteriak kenduz.

II. ERANSKINA

IBARRAKO UDALAREN ETA UZTURPE IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Ibarra udaletxean, 2018ko uztailaren XX.

ELKARTURIK

Alde batetik, Mikel Agirrezabala Ezkurdia, Ibarra Udaleko Alkate-Lehendakaria, Ibarra Udaleko Idazkari Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echavek

Eta bestetik, Iker Gibelalde Otermin jauna, Uzturpe Irakaskuntza Kooperatiba elkartearen zuzendaria. Elkartearen egoitza soziala: Ibarra Egialde kalea, 2an duena, IFK:F-20070934.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarra Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Uzturpe Irakaskuntza Kooperatiba Elkarearen izenean eta ordezkartzan, zuzendari gisa, kooperatibaren kontseilu errektoreak 2015eko martxoaren 4an eskritura bidez D. Pedro Elozegui Bergareche (118 zenbakidun kolegiatua) notarioaren aurrean emandako ahalmenaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- Ibarra udalaren ekimena dela ondoren aipatutako **HAZI ETA HEZI PROIEKTUA SUSTATZEA**

Ibarra urtetik urtera biztanleak galtzen ari da. Horren arrazoietakoa bat etxebizitza kopuru mugatua da, hau da, independizatu nahi duten gazteak ez dute etxebizitza egokirik topatzen herrian eta eskualdeko beste herrietara alde egiten dute, eta gainera, herriaren fisionomia dela eta, Tolosara joera handia du ibartarrak, gertu dagoelako.

Horren guztiaren ondorioz, gazteak herrira lotuko dituen proiektu integratzaile baten beharra dago. Proiektu horrek batetik etxebizitzaren gaiari heldu beharko lioke eta bestetik, neska-mutilak herrira lotuko dituen hezkuntza proiektu bat egon behar du, izan ere, herrian hazten eta hezten den gaztea herrian gelditu nahi du, eta hori oso positiboa da Ibarrentzat.

Behar horren inguruan, Euskara eta Hezkuntza teknikari honek txosten bat egin zuen 2018ko ekainaren 29an. Bertan adierazten du beharrezkoa dela proiektu integratzaile osatu bat, zeinak ondo uztartuko dituen herriarenganako lotura, atxikimendua eta aldi berean hezitzailea izango den, honela, herriarekiko lotura bat sortuz gero, herri grina piztuko litzateke, loturak sortuz herritarren artean eta herriarekiko.

Behar horri erantzunez, Uzturpe Ikastolak **Hazi eta Hezi** izeneko proiektuarentzako diru-laguntza eskaera aurkeztu du udalean (1455 erregistro zenbakia).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Uzturpe ikastola herrian dagoen ikastetxe bakarra da, eta hori dela eta, guraso, irakasle, herriko talde eta erakundeekin batera lana eginez, 2 eta 16 urte bitarteko ikasleen kalitatezko heziketa euskalduna, integrala eta etorkizunera egokitua lantzen du.

Hazi eta hezi proiektuak bilatzen duena da, 2 eta 16 urte bitartekoak herrian geratu, bertan ikasi eta herriarekiko lotura sentitzea. Horretarako euskara eta euskal kultura ardatz hartzen ditu.

Aurkeztutako proiektua Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat dator. Memoria honek **223.073,62** euroko aurrekontua du, diru-laguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da. Jarduerak:

- **Jangela:** Kalitatean oinarritutako jangela, ibarrako elikagaiak eta inguruko nekazari eta harakinen lan egiten dute kalitatezko jangela zerbitzua eskaintzeko.
- **Garraioa:** Ikastolaren kokalekuak sor ditzakeen oztopoak ekiditeko autobus zerbitzua jartzen zaie neska-mutilei eskolara etortzeko.
- **Euskara eta euskal kultura:** Uzturpe ikastola, ekimen soziala duen eta gizarte eragile den aldetik, euskara eta euskal kultura bultzatzeko konpromisoa hartua du bere hezkuntza proiektuan. Ekintza hauen bidez bultzatuko ditu:
 - **Gabonak:** Abenduaren 24ean Ibarra kaleetan zehar gabon kantak abesten dituzte eta amaieran gaztaina-jana egiten dute.
 - **Ostegun gizona:** Inauteriei hasiera emateko, ikastolan ekintza desberdinak egin ostean, kalejiran eta mozorrotuta Ibarra plaza jaisten dira. Txistor ogitartekoak eskaintzen dizkiete familiei eta herritarrei.
 - **Kultur astea:** Aste oso batean hitzaldiak, tailerrak, Allurr eta Loatzoren emanaldiak, haur festa eta mendi irteera antolatzen dituzte. Ekintza guzti hauek partehartzea erabat irekia da.
 - **Euskararen eguna:** Abenduaren 3an ospatzen dute ikastola osoak parte hartzen duelarik. Euskara, egunero beraien ardatza bada ere, egun honetan omenaldiak, kantuak, elkarrizketak eta abar egiten dituzte.
 - **Bertsolaritza:** Bertsolari Elkartearen bitartez gure LH4-5-6ko ikasleei bertsolaritza eskaintzen diegu astero ordu betez.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- **Etorkinen integrazioa eta euskalduntzea.** Urtero geroz eta etorkin gehiago jasotzen ditugu. Herrian integratu eta hezi daitezen ezinbestekoa da ikasle edo familia hauek euskalduntzea
- **Uzturpe aldizkaria:** Hilabeteroko maiztasunarekin modu digitalean eta hiruhileko maiztasunarekin paperean argitaratzen duten aldizkaria da. Bertan ikastolan burututako ekintza nagusiak kaleratzen dira herritarrak ikastolaren berri izan dezaten
- **Uzturpe urtekaria:** Ikasturte bukaeran argitaratzen dugun aldizkaria da. Bertan ikasturte osoko antolaketa eta proiektuak agertzen dira
- **Frantses elkartrukea:** Urtean aste betez gure ikasleak Frantziako ikastetxe bateko ikasleen etxeetara joaten dira eta ondoren beraiek Ibarrara etortzen dira astea pasatzera, gure herria ezagutu eta bertako familia eta jendearekin elkarbizitzera
- **Uzturpeguna:** Ikastolako ikasturte amaierako festa da. 1000 ibartarretik gora biltzen dituen ekitaldia. Elkarlanean oinarritzen da eta Ibartarrak batzeko ekintza paregabea.
- **Mendi irteerak:** Urtean zehar 5 irteera antolatzen dira. Ikastolako familiei zuzendua da baina beste edozein herritarrek ere parte har dezake eta
- **Elkartasun kilometroa:** Urtero burutzen dugun ekintza solidarioa da. Plazan burutzen da eta bai ume zein gurasoak korrika jartzen ditugu. Gure ikasleen bidez Ibarrako haur, guraso eta aiton-amonek gizartean behar gehien dutenei laguntzeko aukera izaten dute solidaritatearen balorea garatuz
- **Eskolaz kanpokoak** Ibarrako haurren heziketa osatu eta familien ordutegi beharrak asetzeko ezinbestekoa da eskolaz kanpoko eskaintza zabala eta osatua eskaintzea. Modu honetan Ibarrako haurrak arteari eta hizkuntzari lotutako heziketa osagarria eskaintzen diete, etorkizun batean oso baliagarri izan dakiekelarik eta etorkizuneko herritar aktiboak sortzen dituztelarik.
- **Ludoteka zerbitzua:** Haurrak dituzten Ibarrako familien gehiengoetan, bi gurasoek lan egiten dute eta honek familia kontziliazioan arazoak sortzen ditu. Hori dela eta, kontziliazioa laguntzeko hainbat zerbitzu eskaintzen dira: Goiz txokoa eta Gabonetako, Aste santuko, ekaineko eta iraileko ludotekak.
- **Guraso eskola:** Gurasoen prestakuntza orokorreko programa bat da, eta haur eta nerabeen heziketaren arloko gai ugariaren inguruan



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

informazioa eta laguntza ematea du xede.

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Diru-laguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan diru-laguntzak jasotzeko adierazitako debekuausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorriz, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den diru-laguntzaren xede eta helbururekin.

V.- Ibarako Udalaren 2018ko udal aurrekontuan, 1.0000.481.324.00.00. 2018. partida agertzen dela, 127.340 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen diru-laguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udallerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: **kulturaren sustapena**. Eskumen hau Udalaren berezko eskumenen artean dago eta Uzturpe Irakaskuntza Kooperatiba elkarteak Ibarako herrian Euskararen normalizazio ahalbidetzea eta erabilgarritasuna sustatzea ditu bere helburu nagusien artean.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. Artikuluan, udallerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen dit; horien artean 17.20 artikuluan **kultura sustatzeko eskumena** adierazten du eta 17.26 artikuluan aldiz **euskara sustatzeko politikak egiteko eskumena** adierazten da... Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa,



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Diru-laguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Ibarako Udalaren eta UZTURPE IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Ibarako udalerriaren barruan.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- **Jangela:** Kalitatean oinarritutako jangela, ibarrako elikagaiak eta inguruko nekazari eta harakinen lan egiten dute kalitatezko jangela zerbitzua eskaintzeko.
- **Garraioa:** Ikastolaren kokalekuak sor ditzakeen oztopoak ekiditeko autobus zerbitzua jartzen zaie neska-mutilei eskolara etortzeko.
- **Euskara eta euskal kultura:** Uzturpe ikastola, ekimen soziala duen eta gizarte eragile den aldetik, euskara eta euskal kultura bultzatzeko konpromisoa hartua du bere hezkuntza proiektuan. Ekintza hauen bidez bultzatuko ditu:
 - **Gabonak:** Abenduaren 24ean Ibarako kaleetan zehar gabon kantak abesten dituzte eta amaieran gaztaina-jana egiten dute.
 - **Ostegun gizona:** Inauteriei hasiera emateko, ikastolan ekintza desberdinak egin ostean, kalejiran eta mozorrotuta Ibarako plazara jaisten dira. Txistor ogitartekoak eskaintzen dizkiete familiei eta herritarrei.
 - **Kultur astea:** Aste oso batean hitzaldiak, tailerrak, Alurr eta Loatzoren emanaldiak, haur festa eta mendi irteera antolatzen dituzte. Ekintza guzti hauetan partehartzea erabat irekia da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- **Euskararen eguna:** Abenduaren 3an ospatzen dute ikastola osoak parte hartzen duelarik. Euskara, egunero beraien ardatza bada ere, egun honetan omenaldiak, kantuak, elkarrizketak eta abar egiten dituzte.
- **Bertsolaritza:** Bertsolari Elkartearen bitartez gure LH4-5-6ko ikasleei bertsolaritza eskaintzen diegu astero ordu betez.
- **Etorkinen integrazioa eta euskalduntzea.** Urtero geroz eta etorkin gehiago jasotzen ditugu. Herrian integratu eta hezi daitezen ezinbestekoa da ikasle edo familia hauek euskalduntzea
- **Uzturpe aldizkaria:** Hilabeteroko maiztasunarekin modu digitalean eta hiruhileko maiztasunarekin paperean argitaratzen duten aldizkaria da. Bertan ikastolan burututako ekintza nagusiak kaleratzen dira herritarrek ikastolaren berri izan dezaten
- **Uzturpe urtekaria:** Ikasturte bukaeran argitaratzen dugun aldizkaria da. Bertan ikasturte osoko antolaketa eta proiektuak agertzen dira
- **Frantses elkartrukea:** Urtean aste betez gure ikasleak Frantziako ikastetxe bateko ikasleen etxeetara joaten dira eta ondoren beraiek Ibarra etortzen dira astea pasatzera, gure herria ezagutu eta bertako familia eta jendearekin elkarbizitzera
- **Uzturpeguna:** Ikastolako ikasturte amaierako festa da. 1000 ibartarretik gora biltzen dituen ekitaldia. Elkarlanean oinarritzen da eta Ibartarrak batzeko ekintza paregabea.
- **Mendi irteerak:** Urtean zehar 5 irteera antolatzen dira. Ikastolako familiei zuzendua da baina beste edozein herritarrek ere parte har dezake eta
- **Elkartasun kilometroa:** Urtero burutzen dugun ekintza solidarioa da. Plazan burutzen da eta bai ume zein gurasoak korrika jartzen ditugu. Gure ikasleen bidez Ibarako haur, guraso eta aiton-amonek gizartean behar gehien dutenei laguntzeko aukera izaten dute solidaritatearen balorea garatuz
- **Eskolaz kanpokoak** Ibarako haurren heziketa osatu eta familien ordutegi beharrak asetzeko ezinbestekoa da eskolaz kanpoko eskaintza zabala eta osatua eskaintzea. Modu honetan Ibarako haurrak arteari eta hizkuntzari lotutako heziketa osagarria eskaintzen diete, etorkizun batean oso baliagarri izan dakiekelarik eta etorkizuneko herritar aktiboak sortzen dituztelarik.
- **Ludoteka zerbitzua:** Haurrak dituzten Ibarako familien gehiengoetan, bi gurasoek lan egiten dute eta honek familia kontziliazioan arazoak sortzen ditu. Hori dela eta, kontziliazioa laguntzeko hainbat zerbitzu eskaintzen dira: Goiz txokoa eta Gabonetako, Aste santuko, ekaineko eta iraileko ludotekak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- **Guraso eskola:** Gurasoen prestakuntza orokorreko programa bat da, eta haur eta nerabeen heziketaren arloko gai ugariaren inguruan informazioa eta laguntza ematea du xede.

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarrako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan diru-laguntza baten bidez. 2018ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek **84.893,36 eurokoak** izango dira, 1.0000.481.324.00.00. 2018 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira diru-laguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarrako udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeena.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

- a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

- b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarra udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek 2018ko urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Ibarra Udalaren diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera III: kapitulua

Bosgarrena.- Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarra Udalaren Ordenantza Orokorren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Seigarrena.- Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarra Udalen III kapituluan diru-laguntzen Ordenantza Orokorren aurreikusita dagoenaren arabera.

Diru-laguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

- a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.
- b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. Eranskina behar den bezala betea.

Zazpigarrena.- Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Diru-laguntzaren ordainketa egingo da, oro har, diru-laguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: lehena organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan, honen zenbatekoa diru-laguntzaren % 80a izango da, eta gainontzeko % 20a, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan, beti ere hurrengo urteko irailaren 28a baino lehen.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Betebeharreko baldintza izango da Ibarako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Ibarako udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Ibarako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena.- Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ibarako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna.

Diru-laguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.

- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.

- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.

- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamabigarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamahirugarrena.- Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamalauugarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabosgarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarako Udalaren diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hamaseigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarra Udalaren diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

Hemezortzigarrena.- Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarra Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako diru-laguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hemeretzigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut

ALKATEA

Uzturpe Irakaskuntza Kooperatiba

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Iker Gibelalde Otermin



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1. ERANSKINA

DIRULAGUNTZA JUSTIFIKAZIO ORRIA

1. ERAKUNDEAREN DATUAK

Erakunde eskatzailea:		IFK	
Helbidea			
Herria		PK	
Tel.		E-posta:	

Arduradunaren izen-deiturak			
Nortasun agiria			
Helbidea			
Herria		PK	
Tel.		E-posta:	

2. PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

Proiektuaren izena (Proiektuaren azalpen laburra)

Proiektu mota



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

--

Proiektuaren iraupena

Hasiera data:		amaiera data:	
---------------	--	---------------	--

Proiektuaren gai nagusiak (Markatu lau lauki gehienez.)

Herri nortasuna	Kulturartekotasuna
Ohiturak	Turismo kulturala
Ondarea	Gastronomia
Artea eta kultura	Musika
Historia	Dantza
Animazio soziokulturala	Arte eszenikoak
Aisialdi hezitzailea	Zinema
Besterik (zehaztu):	

Proiektuaren helburu nagusia

--

Jarduera nagusiak

Jardueren hartzaileak

Zehaztu zeintzuk izan diren (sexua, adin tartea, etab.)

--



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Genero ikuspegia. Ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak.

Zehaztu proiektua garatzerakoan nola hartu diren aintzat emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak.

3. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA: GASTUAK ETA SARRERAK

Azalpena	Behin-betiko kopurua
SARRERAK:	
Proiektuaren berezko diru sarrerak (publizitatea, baliabide propioak...)	€
Erakunde pribatuen diru laguntzak:	€
Herri erakundeen diru laguntzak:	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza	€
Beste herri erakundeen laguntza	€
Ibarrako Udala	€
Beste batzu:	€
GUZTIRA SARRERAK	€

GASTUAK	
Pertsonal kontratuak	€
Ordainagiriak (prestación servicios)	€
Fakturak	€
Tiketak (20 eurotik beherakoak)	€



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

GUZTIRA GASTUAK

€

4. GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Justifikatutako gastuak zehaztuta

MOTA	ZK.	DATA	IGORLEA	JASOTZAILEA	KONTZEPTUA	BEZ-a	IRPF %	KOPURUA
1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								
10								
11								
12								
13								
14								
15								
16								
17								
18								
GUZTIRA								€

AURKEZTU BEHARREKO JUSTIFIKATUTAKO GASTUEN ZEHAZTASUNEI BURUZKO ARGIBIDEAK

Jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:

1. Mota: Gastua zurrizko erabiliko den agiria: Nomina, Ordainagiria (recibo), Faktura edo tiketa (20 euro bitarte)
2. Zenbakia: Faktura edo tiketa bada
3. Data: kasu guztietan
4. Igorlea: Faktura eta Tiketetan burutzen duena eta nomina eta ordainagiritan egiten duen elkarte.
5. Hartzaila: Elkarte faktura eta tiketetan eta nomina eta ordainagiritan lana egin duena.
6. Kontzeptua: lana edo gastuaren objektua
7. Bez-a: Faktura eta Tiketen kasuan.
8. IRPFa: Nomina eta ordainagiri kasuan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

9. Kopurua: Elkarrekin ordaindu behar izan duena.
7. Guztira: Kontzeptu guztien batuketara

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau
Adierazten dut:
Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, deialdi honetako 13. Artikuluak ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolana ere, prest nagoela Ibarra Udaren esku jartzeko jasotako diru-laguntza behar bezala erabili dela konprobatzeko beharrezkoak direnak.
Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :

Ibarra Udala baimentzen dut formulario honen bidez jasotako datuak tratatzeko diru-laguntza eskaera izapidetzeko helburuarekin
(x arekin markatu baimentzea)

Izena Abizenak.....

Lekua eta data:n, 2018korenan

LEGE-OHARRA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, Formulario honetan jasotako datu guztiak Ibarra udalak jaso eta tratatuko ditu zure **eskaera izapidetzeko helburuarekin**.

Zuk borondatez aurkezturiko eskaera honi Udalak erantzun dio udal tramiteak zuri errazteko helburuarekin, eta zuk baimen hori **edozein unetan ezeztatu dezakezu**.

Beraz, zuk emandako baimena udalak edukiko du zuk ezeztatu arte edo sortu zeneko helbururako beharrezko izatea utzi arte.

Datuak tratatzeko, Ibarra Udalak ziurtatzen du egoki diren segurtasun neurri guztiak hartu dituela eta langileei formakuntza eman diela horien pribatizatzea ziurtatzeko, ez galtzeko, gaizki ez erabiltzeko, ez aldatzeko baimenik gabe ez sartzeko edota ez galtzeko, Izaera pertsonaleko Datuen Babeserako araudia betez.

Interesdunak edozein unetan du eskubidea bere datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko, aurkaratzeko, mugatzeko eta eramateko. Horretarako eskabidea aurkeztu behar dio Ibarra udaleko Datuen babeserako ordezkariari San Bartolomé Plaza 2, 20400 IBARRA, edo emaila bidal dezake dbo@ibarra.eus, helbidera, bi kasuetan hau adieraziz: "Gaia: DBLO eskubideak" eta nortasuna egiaztatzeko agiri baten kopia erantsita, araudiak dioena betez.

Bere eskubideak ez direla behar bezala kontuan izan uste badu, arlo horretan eskumena duen agintaritzara jo dezake (Datuen Babeserako Agentzia www.agpd.es)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

III ERANSKINA

GEHIGARRIA I: San Bartolome jaiak 2018-Egitaraua

*** ABUZTUAK 23, OSTEGUNA**

- **11:30:** XXX. San Bartolome **bozeto lehiaketako eta III. Diseinu lehiaketako sari-banaketa**, San Bartolome plazan.
 - **11:45:** **Haurren eta gaztetxoek koadrilak plazan elkartuko dira.**
 - **12:00:** **Jaien hasiera: Suziri jautiketa Ibarako Merkatarien Elkartean eskutik** eta Bartola eta Bartoloren jaitsiera kiroldegitik plazaraino. Ondoren, **Ibarako, Zizurkilgo eta Villabonako erraldoien eta buruhandien konpartsarekin batera**, haur eta gaztetxoek koadrilen kalejira herrian barrena.
 - **Ondoren: Ibarako Merkatarien Elkarreak eskainitako hamaiketako**, San Bartolome plazan.
 - **14:00:** **Haurren eta gaztetxoek bazkaria** San Bartolome plazan, herriko gurasoen eskutik.
 - **16:00:** **Haurrentzako jokoak** Txiribitu Astialdi taldearen eskutik, San Bartolome plazan.
 - **18:00:** **Ibarako, Zizurkilgo eta Villabonako erraldoien eta buruhandien konpartsa** herriko kaleetan zehar.
 - **19:00:** **San Bartolome bezperako kanpai-jotzea eta salbea**, San Bartolome elizan.
 - **19:00:** **Poteo musikatua eta brindisa**, herrian zehar plazatik abiatuta.
 - **21:00:** **Elkartasun afaria**, San Bartolome plazan.
 - **22:30:** **Zezensuzkoa***, San Bartolome plazan.
- * Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoak ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.
- **23:30:** **HUMUS eta SOZIEDAD ALKOHOLIKA** taldeen kontzertua, San Bartolome plazan.

*** ABUZTUAK 24, OSTIRALA, San Bartolome eguna.**

- **09:00:** **Diana** herriko txistularien eskutik.
- **10:30:** **Meza nagusia**, San Bartolome elizan.
- **11:30:** **Haurren danborrada** Iraunkorrek txarangak alaituta.
- **12:00:** **Piparrak eta tomateak**, San Bartolome plazan, herriko baratzezainek, Zubelzu Piparrak etxeak, Ibarlur Piparra Kooperatibak eta Txumitxak eskaini eta zerbitzatua.
- **18:00:** **KUPELA taldearen emanaldia**, San Bartolome plazan.
- **18:00:** **Helduen danborradaren entsegua**, Azkue auzoan.
- **19:00:** Bertsolarien emanaldia: **Ibarako bertso-eskolako ikasleak, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Aitor Sarriegi eta Unai Mendizabal**, Emeterio Arrese parkean.
- **20:00:** **Helduen danborrada** Iraunkorrek txarangak alaituta.
- **22:30:** **Zezensuzkoa***, San Bartolome plazan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

*Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.

- **23:30: LAKET*** taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

*Músicos Unidos Siglo XXI S. Coop. Mad.-en eskutik.

*** ABUZTUAK 25, LARUNBATA.**

- **09:00: Diana GIROARTE** dultzaina taldearen eskutik.
- **11:30: Festa herrikoa**, herriko kaleetan zehar, Hauspoa Kultur Elkartearen eskutik.
- **14:30: Txekor-jatea**, Emeterio Arrese parkean, Sendi-Ekintza elkartearen eskutik.

- **17:00: Haurrentzako paseoak zalgurdian** Asier Lopetegiren eskutik, San Bartolome plazan.

- **19:00: Soka-dantza**, San Bartolome plazan.

- **22:30: Zezensuzkoa***, San Bartolome plazan.

*Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.

- **22:45: DJ ANDONI**ren emanaldia, Txumitxa atzealdeko plazan.

- **23:00: ERRUKIRIK GABE, OZTOPO eta IRATZAR** taldeen emanaldia, San Bartolome plazan.

*** ABUZTUAK 26, IGANDEA, kirolaren eguna**

- **09:00: Diana** herriko trikitilarien eskutik.

- **10:00: Haurrentzako 3x3 futbol txapelketa**, Emeterio Arrese parkean Lauburu Kirol Elkartearen eskutik.

- **11:00: Erretiratuentzako hamaiketakoa**, Bizi-Nahi elkartean.

- **11:30: Toka eta bola txapelketa**, Emeterio Arrese parkean Ibarako Kirol Elkartearen eskutik.

- **11:30: Haur eta gaztetxoentzako toka eta bola txapelketa**, Emeterio Arrese parkean Ibarako Kirol Elkartearen eskutik.

- **11:30: Xake gunea**: Bat-bateko xake partidaren erakustaldia, ikastaro txikia, xake erraldoia, eta abar, Emeterio Arrese parkean, Ibarako Xake Elkartearen eskutik.

- **12:00: Pilota partidak** Belabieta pilotalekuan, Sendi-Ekintza pilota eskolaren eskutik.

- **16:00: Nerabeentzako futbol-bolak**, San Bartolome plazan.

- **19:30: Auzoen arteko sokatira lehiaketa herrikoa**, San Bartolome plazan, Ibarra Sokatira Taldearen eskutik.

- **22:30: Zezensuzkoa***, San Bartolome plazan.

*Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoko txinpartekin erre baitaiteke.

- **22:45: Alurr Dantza Taldearen** emanaldia, Emeterio Arrese parkean.

- **23:45: DJ ANDONI**ren emanaldia, erretiratuen elkartearen aurrealdeko plazan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- **00:00: GABEZIN*** taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

* J.O. Ikusikizun Sistemak-en eskutik.

* **ABUZTUAK 27, ASTELEHENA: Koadrilen eguna.**

- **09:00: Diana GIROARTE** dultzaina taldearen eskutik.
- **11:45: Koadrilak San Bartolome plazan elkartuko dira.**
- **12:00: Koadrila berriari ongi-etorria: Koadrilen txupinazoa eta brindisa** plazan.
- **Ondoren: Koadrilen kalejira BONBERENEA** txarangarekin *eta GIROARTE* dultzaina taldearekin batera.
- **14:30: Koadrilen bazkaria “Ze habil barrabil eta Isk&bila”** koadrilek antolatuta, Emeterio Arrese parkean.
- **17:00: DJ Jotatxo**, Emeterio Arrese parkean.
- **19:00: Elektrotxarangarekin koadrilen kalejira** herrian zehar.
- **22:30: Zezensuzkoa***, San Bartolome plazan.

*Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.

- **00:00: “Mutil zarrak” koadrilak piparra** osasun-etxetik San Bartolome plazaraino eramango du eta, ondoren **erre egingo du.**
- **00:45: ZESUMA*** taldearekin dantzaldia, San Bartolome plazan.

*Musikari Euskal Herriko Musikariak elkartearen eskutik.

* **IRAILAK 2, IGANDEA.**

- **10:00: Gazteentzako txirrindulari-lasterketa, XXXVII.** San Bartolome saria, Ibarra Kirol Elkartearen eskutik.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

GEHIGARRIA II: San Bartolome jaiak 2018-Aurrekontua

KONTZEPTUA	GASTUA
MUSIKA TALDEAK	28.348,50 €
Gabezin	1.149,50 €
Laket	1.452,00 €
Humus	800,00 €
Soziedad Alkoholika	13.310,00 €
DJ Andoni (Txumitxan saioa)	363,00 €
DJ Andoni (Jubilatuetan saioa)	302,50 €
Iratzar	1.089,00 €
Errukirik gabe	
Oztopo	620,00 €
Zesuma	1.512,50 €
Musikoen afariak	750,00 €
Musikoen edariak	200,00 €
Soinu eta argi ekipoaren alokairua	6.800,00 €
KIROLAK	5.673,43 €
Soka-tira lehiaketa	1.710,00 €
Kamisetak (60x11,00 €)	660,00 €
Afaria (60x15,00 €)	900,00 €
Saria	150,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3x3 futbol txapelketa:	1.287,35 €
Kamisetak (120)	780,00 €
Kartelak	30,00 €
Trofeoak	477,35 €
Pilota partidak	1.420,00 €
Pilotariak	1.400,00 €
Pilota partidetarako ura	20,00 €
Toka eta bola txapelketa:	1.226,08 €
* Haurrentzat goxokiak	55,00 €
* Laguntzaileei hamaiketakoa	100,00 €
* Harea	30,00 €
* Tokarako txapa	421,08 €
* Materiala	20,00 €
* Diru-sariak eta trofeoak	600,00 €
Xake erakustaldia:	30,00 €
* Monitoreak (1 x 2 ordu x 15,00 €)	30,00 €
MUSIKARIAK	8.130,00 €
Dultzaineroak Giroarte	1.300,00 €
Herriko musikariak dianak	500,00 €
Gaztetxoaren txaranga	600,00 €
Iraunkorrek txaranga (helduen dan.)	1.210,00 €
Iraunkorrek txaranga (haurren dan.)	1.210,00 €
Bonberenea txaranga	1.500,00 €
Txistularia (San Bartolome)	60,00 €
Txistulariak (soka-dantza)	180,00 €
Trikitilariak (Kupela taldea)	1.570,00 €
JARDUERAK	2.950,00 €
Bertso saioa	1.500,00 €
Ibarrako buruhandiak eta erraldoiak	450,00 €
Erraldien konpartsa	1.000,00 €
KOADRILEN EGUNA	4.400,00 €
Helduen koadrilei dirulaguntza	2.000,00 €
DJ Jotatxo	250,00 €
Elektrotzaranga	1.200,00 €
Musikoen bazkaria	750,00 €
Haurren koadrilei diru-laguntza	200,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

FESTA HERRIKOIA	1.340,00 €
Ardo goxoa	28,00 €
Materiala	244,53 €
Erroskilak	142,60 €
Hamaiketakoa	424,87 €
Trikitolariak	100,00 €
Panperoa (musikoen bazkaria: 16x25,00 €)	400,00 €
DANBORRADA	1.125,00 €
Haurren danborradarako gozokiak	150,00 €
Danborradarako makilak, danborrak...	300,00 €
Ura	100,00 €
Materiala (konfetiak, ...)	100,00 €
Helduen danborrada laguntza	400,00 €
Karroza mantenua	75,00 €
BARTOLOME EGUNA	1.800,00 €
Komunitate parrokiaren hamaiketakoa	400,00 €
Zerbitzari lanak (Ikastolako ikasleak)	300,00 €
Piparra eta tomateak	700,00 €
Ardoa	400,00 €
AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK	18.013,57 €
Anbulantzia zerbitzua	1.700,00 €
Aironflox txuria eta mahaietako papera	175,00 €
Argazkien errebelatua	400,00 €
Argazki albunak	100,00 €
Agerremedia argazkilaria	1.663,75 €
Argindarra boletinak	1.200,00 €
Bailak, toldoak.. (Alki Anoeta)	1.500,00 €
Bailatzeko zinta	200,00 €
Basura poltsak	50,00 €
Bolondresen aseguruua	500,00 €
Butanoak	140,00 €
Elektrizitate kontsumoa (plaza)	400,00 €
Elektrizitate kontsumoa (Emeterio Arrese)	200,00 €
Elektrizitate materiala	300,00 €
Emeterio Arreseko txaboletarako materia	100,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Errepidea isteko tasa (Eusko Jaurlaritza)	10,00 €
Garbiketak	150,00 €
Garbigailuak alokatzea	484,00 €
Garbigailuentzat xaboia	50,00 €
Giltzen kopiak	80,00 €
Goxokiak (jaien hasiera)	150,00 €
Harea	50,00 €
Ikurrinak (zintzilikatzekoak)	100,00 €
Izotza	60,00 €
Komunen alokairua	1.782,00 €
Komunetarako materiala	130,00 €
Kontenedoreak (harea)	100,00 €
Maxkuriak	120,00 €
Megafonia	3.150,00 €
Papera eta brigadarako hainbat material	130,00 €
Pilak	20,00 €
Seinalizazioak	70,00 €
Serbiletak...	50,00 €
Suziriak	230,00 €
Tintoreria	100,00 €
Trofeoak	600,00 €
Udalaren errepresentazio gastuak	550,00 €
Zapiak (euskara eta Ibarra)	338,80 €
Zezen suzkoa afaria	130,00 €
Zezen suzkoarentzat kargak	750,02 €
EGITARAUA	1.860,91 €
Bozeto lehiaketa sariak	85,91 €
Diseinu lehiaketa saria	300,00 €
Diseinu lehiaketa PFEZ erretentzioa (%19)	75,00 €
Publizitatea (Arrate irratia)	150,00 €
Publizitatea (Ataria faldoia)	500,00 €
Publizitatea eskuprograman (Kutxabank)	300,00 €
Programa banaketa	450,00 €
HAMAIKETAKOAK	1.110,00 €
Jubilatuak	460,00 €



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Merkatarien elkarte laguntza	650,00 €
HAURRENTZAT JARDUERAK	1.244,50 €
Haurrentzako jokoak (Txiribitu)	300,00 €
Bola-futbola	544,50 €
Zaldi-gurdian paseoak	400,00 €
GUZTIRAKO GASTUA	75.995,91 €